

Herririk Herri |4|
Berrizko musika taldeek 200 metro
koadroko lokala izango dabe

Ekonomia |10|
'Berrikuntza Agenda' aurkeztuko dau
Behargintzak, ekainaren 26an



Berbaz |9|
Markel Ganboa: "Eskualdeko gazteok
ez daukagu elkartzeko lekurik"

Judith Arndt Emakumeen Birako lehen etapako garaile

- > Columbia taldeko Judith Arndt txirrindulari alemaniarrek irabazi eban atzo, lurretan, 22. Emakumeen Birako lehenengo etapa.
- > Gaur Araban sartuko da Bira, eta bihar goizean lurretara itzuliko da Goiurirako kronoigoeragaz. Domekan erabakiko da podiuma, Urduñan.

25



Arndt esprintean nagusitu zitzaien gainerako faboritoei. Kepa Aginako

Etxebizitza tasatuen araudi orokorra onartu dau Udalak

Iurreta• Paduretako hirigintza egi-
tasmoa garatzeko aukera emongo
dauen etxebizitza tasatuen orde-
nantza onartu dau Udalak. Dene-
ra, 300 etxebizitza eraiki gura ditue;
tartean, 61 tasatu.

2

'Inox' izeneko disko barria aurkeztu deusku Muted-ek

KULTURA• Orain hiru astetik sal-
gai daukien *Inox* izeneko diskoari
buruz berbetan jardun jakuz Muted
taldekoak Muntzarazko entsegu
lokalean egin dogun hitzorduan.
Diskoaren aurkezpen ofiziala euren
"etxe" moduan sentitzen dabenean,
Durangoko Plateruenean, egingo
dabe abadiñarrek bihar, 22:00eta-
tik aurrera, Armyarma talde zorno-
tzarragaz eskainiko daben kontzer-
tuan. Hemen aurrerapentxoia. 13



•**Durango**
Ahotsaken ekitaldia bihar,
12:30ean, Andra Marian

4

•**Abadiño**
Makina bat lagun bilduko ditu
San Antonio egunak Urkiolan

6



HERRIRIK HERRI >

DIURRETA

Etxebizitza tasatuen araudia onartu egin dau udalbatzarrak

Abuzturako indarrean egon leiteke Paduretakoko egitasmoa garatzeko erabiliko den ordenantza

Etxebizitza tasatuak arautzeko ordenantza onartu barri dau udalbatzarrak. Abuztuan aurreikusi dabe indarrean egotea, horretara, Paduretakoko hiritzinta egitasmoa garatzeko aukera emonez. Denera, 330 etxebizitza inguru eraiki gura ditue erreka eta saihebidetaren artean; tartean, 61 etxebizitza tasatu. EAJ, PP eta EB-Berdeek egin dabe alde; abstenu egin dira PSE-EE eta Fernando Borja zinegotzia. Sozialisten berbetan, “urtean ia 60.000 euroko gehiengo diru-sarrera zehaztu izanari ez deritzogu zuzena. Soldata baxuagoa daukienei lagundu beharko geunskie”.


Tasatu etxerako araudi orokorra da onartu dabena; kasuan kasu, horretan oinarritutako arautzeko oinarriak zehaztuko ditue. Iñaki Totorikaguenak azaldu dauenez, babeseleko prezioaren gaintik 1,5eko koefizientea gehitu dabe: “Ponderatutako

gehienezko diru-sarrera 53.000 euro inguruan zehaztu dogu”. Sozialisten eskaera aztertuko daben arren, “jaisteak tasatuotako bat lortzeko aukera asko mugatu” leikela be uste dau alkateak. Lehentasuna izango dabe, bestalde, hiru urtean herrian erroldatuta egon direnek, gero eskaeren arabera aukerak zabaldu arren.

Hamar bat etxe botatzeko

Birpartzelazinoa eta barriz etxea hartzeko itunak sinatu beharko dira orain, Padureta ingurua garatzeko hamar bat etxe botako dira eta. Holakoetan, koefizientea baxuago izatea belotu dabe. ■ A.B.

Araudi orokorra onartu dabe; kasuan kasu, horretan oinarrituta arautzeko bideak zehaztuko ditue



Paduretakoko egitasmoa garatu gura dau Udalak; bertan 61 etxebizitza tasatu aurreikusi ditue. A.B.

Astehenean bota eben Gaztetxea izan zeiten okupatutako eraikina

8:15ean ertzainen auto bat joan zen okupatutako etxera. Atarian zain zegoen gazteei hesitik kanpora joateko agindu eta eraikinaren barruan inor ez zegoela segurtatu ondoren, hondeagailua lanean hasi zen. Goiz erdirako eraikina lurragaz bat eginda zegoen. Iurretako Gazte Asanbladako kideek ez dabela etsiko zinoen, eta “lanerako gogoz eta inoiz baino ilusino handiagoz” dagozela. Botatako eraikina joan zen asteko asteartean okupatu eben.



Trafikoa arautzeko ordenantza indarrean dago jadanik

Trafikoa arautzeko ordenantza behin betiko onartuta, indarrean jarri da dagoeneko. EAJk, EB-Berdeek eta PPK emon dabe aldeko botoa. PSE-EE eta Fernando Borja zinegotzia abstenu egin dira. Orain arte legedi orokorraren arabera arautu dabe trafikoa Iurretan.

Udal jabetzako herri barruko bideen segurtasuna, erabilera eta trafikoa arautuko ditu indarrean den ordenantzak

Udal jabetzako herri barruko bideen segurtasuna, erabilera eta trafikoa arautuko ditu ordenantza horrek. Arau-hauste larriak eta arinak zehaztu ditue bertan, arau-hauste bakotxari jagokozen zigorrak ez eze. Igaz arte, Ertzaintzak eroan izan dau isunen gestinoa, baina Jaurlaritzak jakinarazo eban gestino hori tokian tokiko udalen esku itziko ebala. Horren haritik egin dabe ordenantza. ■ A.B.

Energia elektrikoaren eroanbide linearen kontra

Udalbatzarrak aho batez baztertu dau Espainiako Ingurumen Ministerioak egindako proposamena

Energia elektrikoaren linearen kontra agertu da udalbatzarra, aho batez. Gueñestik Ezkio-Itsasora doan 400 kilowatioko linearen baitan 45 metro altuko torreak —bata bestetik 500 metrora legokez— aurreikusi ditue, Udalari helarazotako informazioaren arabera. Alternatiba bi zehaztu ei ditu Espainiako Ingurumen Ministerioak: Artatzen eragingo leuke bata eta Bakixan besteak. Bion kontra agertu da udalbatzarra.

Arrazoiu dabenez, badago indar bereko bestelina bat Fauste inguruan, eta begi-inpaktua nahiz paisaia mailakoa nabarmenak litzakez, “nekazaritza eta paisaia balore altuko inguruan”. Sute arriskurik ez ei da, gainera, aintzat hartu, baso askoko inguruan izanik: “Bizi-kalitatea alternatiba biek txikitzen” dabela adierazo dabe, “uhin magnetikoen eragina zenbatekoa izan leiteken jakin barik batez be”, eta ez dabe

uste proiektua justifikatuta dagoenik, “bermatuta dago-eta energia”.

Eragin akustiko eta ekonomikoa be aiatu ditue, eta ez dela lurraren okupazioa aintzat hartu: “Barrera-efektua sortu leiteke faunan eraginez; gehiago oraindino Urkiola-Urdaibai korridore ekologikoa ukituta”. Udalak esan dau ingurumen agiria falta dabela, baina, hasieratik agertu gura dabe kontrako jarrera. ■ A.B.

Proposamen biek ala biek “bizi-kalitatea txikitzen” dabela nabarmendu dabe

Gueñestik Ezkio-Itsasora doan 400 kilowatioko linearen baitan 45 metroko torreak aurreikusi ditue



MAÑARIA

Ikasle dabilzenek diru-laguntza eskatu leikie ekainaren 29a arte

Ekainaren 29a arteko epea daukie Euskal Autonomia Erkidegoko batxilergoko, unibertsitateko eta lanbide heziketako ikastegi ofizialetan euren ikasketak burutzen dihardueen mañariarrek mugikortasunerako udal-laguntzarako eskaerak Udaletxean aurkezteko. Euren ikasketak egiteko herri-
tik kanpora joan beharra daukien mañariarrak dira aitatutako diru-laguntza honen onuradun izan leitekezenak. Horretarako, ekainaren 29a baino lehenago egin behar dabe Udalean eskaria. Eskaera-orriagaz batera, diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko dabe interesdunek Udaleko idazkaritzan: nortasun-agiriaren, egoitza-txartelaren edo pasaportearen eta ikasketa-baimenaren fotokopia, eta 2008/2009 ikasturtean jagokon unibertsitate edo ikastegian betetako matrikulazioaren ziurtagiria. ■ I.E.

Batxilergo, lanbide heziketa eta unibertsitateko ikasketei zuzendutako laguntzak dira

Ekainaren 29a arte, Udalean aurkeztu beharko dira diru-laguntza jasotzeko eskaera orria eta dokumentazioa

MALLABIA

Euskal Herriko lehenengo txoko-batzokia inauguratuko dabe

EAJk asteburuan zabalduko dau egoitza barria, Intxaurti kaleko 8. zenbakian. Horixe izango da Euskal Herrian egingo daben lehenengo txoko-batzokia. Ez da izango ohiko batzokien modukoa, ez dau-eta taberna moduan funtzionatuko. Txoko horretan “batzarrak eta afaritxoak” egiteko lekua izango dabela azaldu dabe Mallabiko EAJkoek. Funtzionamendua, beste edozein elkarteren antzekoa izango da; bazkideak afiliatuak izango dira. Hilaren 21ean, 12:00etan egingo daben inaugurazina Andoni Ortuzar BBBko presidentea etorriko da. ■ P. M.

ZALDIBAR

Kooperazinarako 17.000 euroko aurrekontua gorde dau Udalak

Udaleko Osasun, Gizarte Ongizate, Emakume eta Gazteria Batzordean adostu dabe 17.300 euro inguruko aurrekontuabideratzea, urte honetan zehar, beste herriekiko kooperazinoan. Nikaragua, El Salvador eta Kuban garatuko ditueen proiektuetan inbertituko dabe diru-laguntza.

Nikaragua, El Salvador eta Kuban hainbat proiektu garatzera bideratuko dabe Udalaren diru-laguntza

2009ko udal aurrekontu osoaren %0,7 inguru da kooperazino proiektuetara bideratuko dabena

Udalaren aurtengo aurrekontu osoaren %0,7 inguru den diru-laguntza, Euskal Fondoaren bitartez bideratuko dabela jakinarazo dau Udalak. Bertako nekazariak 175 etxebizitza eraiki ahal izateko, Nikaraguan inbertituko ditue 8.800 euro. El Salvadorreko Suchitoto eskualdean edateko ur-hornidura ezartzeko, barriz, 4.200 euro bideratuko ditue, eta ezintasunak jotako haurrentzako arreta programa garatzeko, 4.200 euro bideratuko ditue Kuban. ■ I.E.

Ekainaren 17a arte emon leiteke izena Udako Ludotekan

Urtero egiten dauen moduan, Mallabiko Udalak martxan jarri dau herriko haurrei zuzendutako Udako Ludoteka. Parte hartu gura dabenek izen-emote orriak eskolan, Udaletxean eta Kultur Etxean eskuragarri ditue. Apuntatzeko azkenengo eguna ekainaren 17an izango da. Udako oporrak hartzeagaz batera, uztailean 1ean Ludoteka eskolan jarriko dabe martxan uztailean 23a arte, goizeko 10:00etatik 13:30era. 4 urtetik 14 urte bitarteko gaztetxoek parte hartu leikie Ludotekan. Gehieenez 50 umerendako lekua egongo dela azaldu deuskue antolatzailleek. ■ P. M.

ELORRIO

Haizeteak apurtutako hilobia konponduko dabe Argiñetan

Haizeak botatako haritz bat hilobiaren gainera erori zen orain hile bi; beharrezko azterketak eginda, hileon hasiko dira berreskuratzen



Irudian ebakita ageri den haritzak bete-betean jo eban hilobia, eta gainalde osoa apurtu eutsan.

Orain hile bi inguru haizete zakar batek Durangaldea astindueban. Elorrion hainbat zuhaitz bota zituen, baina gitxiak itxaroten eben horreetako batek eragingo eban kaltea. Argiñetako hilobi baten gainera jausi zen haritz bat, eta gainalde osoa apurtu eutsan. Harrezkero, Udala elkarlanean aritu da Aldundiko Kultura Saileko teknikariek. Beharrezko azterketa guztiak eginda, asteon Gasteizko Petra zaharberrikuntza- enpresari esleitu deustsiez konponketa lanak.

Bide batez, hilobien oinak garbituko ditue, hezetasunak kaltea eragiten deutse-eta

Bide batez, Argiñetako gainetako hilobietan mantenu-lanak egingo ditue. Izan be, goroldioa eta moztutako belarra hilobien oinarrietan pilatzen da; horrek humedadea sortzen dau, eta harriaren kalterako da. Elorrioko ondare historiko diren kurutzeak babesteko neurriak be hartuko ditu Udalak

2009an zehar. Ondare Ibilbidean sartuko direnak erabarrituko ditue lehenengo; San Joanekoa, esaterako. Gainera, San Joanekoa fundizino baten alboan dago, eta apurka okerrera doa. ■ J.D.

Aurten Elorrioko kurutzeak babesteko lanak be hasi gura ditue; Ondare Ibilbidekoak eraberrituko ditue lehenengo

Inoizko gaztetxorik gehien elkartuko da udalekuetan

Guztira 172 dira; halan be, etxe batzuetara ez da informazioa heldu eta ezin izan dabe apuntatu

Udalak antolatu dituen udalekuetara inoiz baino gaztetxo gehiagok emon dau izena: 172 dira guztira; itxaroten eben baino 30 bat gehiago. Aurrez hitzartutako kopurutik gora dira, baina denei tokia egiten saiatuko direla jakinarazi dabe.

Halan be, herritar batzuk haserre dagoz euren etxeetara

Triptikoak bi aste lehenago postetxean zegozela dinoe udal arduradunek

ra informazinarik heldu ez edo izena emoteko epea amaitu (ekainak 5) baino egun bat lehenago ailegatu delako. Udal arduradunek dinonez, “postetxeak maiatzaren 22ko barikuan bazeukazen triptikoak, eta 25ean jaso genduzen Udaletxean eta Kultur Etxean. Webgunean be jarri eben informazioa. Ez daki-gu zehatz zer gertatu den, baina banaketa herri osoan egin da, baita auzoetan be. Horren erakusgarri da inoiz baino gaztetxo gehiago izatea”. ■ J.D.

ALBORDI
HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela

Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

Aurretiaz prestatutako janariak
Deneriko CATERING zerbitzuak

Arriandi industrialdea
Tf: 94 681 44 00
48215 IURRETA/ Bizkaia

ALBORDI
HARATEGIA
DURANGO

DURANGO

Lanean hasteko lehenengo pausoa da aldarazpena, Aralarren berbetan

Hiru milioi eurotik gorako aldarazpenak batutako egitasmoak aurtan abiatu behar direla dinoe

Hiru milioi eurotik gorako kreditu aldarazpena onartuta "islatutako" irudiaz haratago, "zazpi zinegotziak lanean jarri" daizela eskatu deutso Aralarrek EAJri. Lanean hasteko "abiapuntua" izan dela nabarmendu dau, eta akordioan jasotako egitasmo guztiak aurtan jarri behar direla martxan. Inbertsinoak, gastu arrunta, TAOaren eraldaketa eta lanpostuen zerrenda: lau multzo nagusiotan batuta 16 puntu jaso dituen akordioa azaltzeagaz batera egin dau eskaera.

Udal jarduna "nahiko blokeatuta" eta aurrekontua ataratzeko

Akordioan jasotako proiektuak martxan jartzeko "zazpi zinegotziak lanean jartzeko" eskatu deutso EAJri

"Akordioan batu denaren erantzule" ei da Aralar, baina ez bat ez datorren aurrekontu eta kudeaketa eredu batena

"gaitasunik barik" ikusita, Aralarrek "beharrezko" ikusi dau aldarazpen "sakon" hori onartzea, "bal-dintza batzuk jarrita". Ildo horretan, "jarrera maximalisten" aurrean aurrera egiteko gai izan behar direla dinoe: "Eguneroko arazoei aurre egiteko proiektu batzuk preminazkoak dira, eta kontsentsuari helduta egitasmoak ateratzen ahalegindu behar dogu".

Akordioaren "erantzule"
Aurrekontua onartu ez zela-eta, akordioak jasotakoaren "erantzule" direla dinoe, baina ez bat ez datozen aurrekontu edo kudeaketa ereduarena. Errugbi-zelaia haizetara dauden azpiegituretan erabiltzaile gehien dituen dela dinoe, eta Tabiran jolasgune baten gabezia bazegoela. Juan Itziarko lanak egin eta karkabak egokitzeko adostasuna, eta ANBOTO eta Plateruenagaz hitzarmenak be gogoratu ditue, eta alokairurako laguntzetarako dirua "erizpideak egokitze-ko". Babeseko kudeaketarako aholkularitza enpresaren kontratazinoa eta azpikontratazioaren azterketa be aiatatu ditue. ■ A.B.

BERRIZ

Herriko musika taldeendako entsegu lokala atonduko dabe

125.000 euroko atala onartu dabe Iturrizan lokal bat erosi ahal izateko

Berrizen musikak tradizio handia daukala argudiatuz, udalbatzarrak herriko musika taldeentzako entsegu lokal bat prestatu gura dau. Lehenengo urratsa lokala erosteko diru atala onartzea da. Eguazteneko batzarrean 125.000 euro onartu ditue horretarako. Aukeratu daben lokala Iturriza kaleko 42 zenbakian dago, eta ia 200 metro karratu daukaz.

Proiektua aurtan egiteko asmoa daukie, eta lokala 2010 urtean zehar atontuko dabe. Datorren urteko amaiera aldera prest egotea gura leukie.

Oraindino goiz da lokala zelan prestatuko daben erabakitzeko, baina lan horretan herriko musika taldeen eritziak aintzat hartuko ditueela aiatatu dabe. Entsegu-gelek, gitxienez, 20 metro karratu behar dabe, eta holako lau bat egingo ditue; baita komunak eta aldagelak be.

Dagoeneko kontaktatu ipini dira herriko zenbait musika taldegaz. Hareei herriko talde guztiei asmoa jakinarazteko esan deutsee. Helburua denen artean talde bat sortzea eta lokalaren gestinoa eurekeroatea da. ■ J.D.

Lokalak ia 200 metro karratu daukaz; 2009an zehar osatu gura dabe proiektua



Iturriza kaleko 42 zenbakian dago lokala. Iban Gorriti

Elkarrizketaren aldeko deia egingo dau bihar Ahotsakek

Durangoko Ahotsak taldeak elkarrizketaren aldeko ekimena antolatu dau zapaturako, ekainaren 13rako, Andra Mariko elizpean. Holan, elkarrizketaren aldeko elkarretaratzea antolatu dabe, 12:30ean. Durangaldeko emakumeei deialdi zabala egin deutsee ekimenen parte hartu daien.

Ahotsakekoek aurreratu dabe-nez, murla be egingo dabe elkarrizketa politikoaren alde, Andra

Andra Mariko elizpean elkarrizketaren aldeko elkarretaratzea eratu dabe

Durangaldeko emakumeei ekimenagaz bat egin daien dei egin deutse Ahotsakek

Marian; Durangaldeko 200 andraren argazkiekin osatuko dabe.

"Esanahiz bete"
Ekitaldi "xumea" baina "esanahiz bete" eratu gura izan dabe Ahotsakekoek, eta "herritar guztiei, bereziki politikoei, "Euskal Herriak bizi dauen gatazka" konpondu ahal izateko berba egitera jartzeko deia luzatu deutsee. "Arazoak berba eginez konpondu ahal direlako, Durangaldeko emakumeok elkarrizketaren alde gagoz": mezu horregaz ados dagozen emakumeen argazkiak jarriko ditue ekimenen. ■ A.B.

GARAI

Lizarraldera joango dira herriko nagusien elkartekoak

San Migel jubilatuen elkarteak ekintzak prestatzen jarraitzen dau, eta oraingoan Nafarroa bisitatuko dabe herriko nagusiek. Astelehenean izango da irteera, Lizarra eta bere inguruetara.

Goizeko 9:00etan abiatuko da Garaiko espedizinoa Nafa-

rrako lurretara. 11:30ean indarrak hartzeko aukera izango dabe bertaratzen direnek, hamaiketako prest izango dabe-eta. Tripa bete ondoren, Arellanoko hiribildura hurreratuko dira. Han Villa de las Musas arkeologia-aztarnategira bisitaldia egingo dabe; gaur egun museo lege egokituta dago erromatarren garaiko leku interesgarri hori.

Ingurua ezagutu eta gero, Aiegiko hotel batean bazkalduko dabe, bertako produktuak dastatzeko aukera eskainiz. ■ M. O.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DIBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

EGIA AROZTEGIA
EBANISTERIA

ZUZENENKO SALMENTA

Sukaldeak - Ateak - Armairuak neurritara - Oholtzak

Tel. eta Faxo: 681 77 46
Etxea: 620 25 65 - Mugikorra: 989 70 37 54

Tablita kalea, 54
48200 DURANGO

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 - DURANGO
Tel.: 94 681 50 17



NEKAZARITZA KOMERTZIALA

BASERRI TRESNAK

Konponketa eta salmenta:
traktoreak, segamakinak, motozerrak,
motoaitzurak, moztaileak, belarra mozteko makinak,
sasiak garbitzeko makinak...

**prezio
berezia**



**ALTUERA HANDIKO
HESKAI-MOZTEKOAK**

HEX 125
399€...



**MOTOSEGA ETA
SASI-GARBITZEKOAK**

FS 40
189€...
FS 50
219€...

GASOLINAZKO



**BELARRA MOZTEKO
TRAKTOREAK**

MT 5000 C
3.590€...

GASOLINAZKO

MOTOZERRIAK

**ELEKTRIKOAK ETA
GASOLINAZKOAK**

MS 121
239€...
MS 181
292€...
MS 211
369€...



**BELARRA MOZTEKO
TRAKTOREAK**

MB 3 FT
619€...

GASOLINAZKO



**HAIZE MAKINAK
XURGAGAILUAK**

BC 58
245€...
SIBICE
349€...



ABADIÑO

Egindako lana eskertu deusie
Independienteek Canalaechevarriari

Astelehen honetan Talde Independenteko zinegotzi leizeukan kargua itzi dauen Luis Miguel Canalaechevarria zinegotziaren dimisioari buruz, haren "zintzotasuna ezagutzen dogulako, ez dogu bere jokabidea baloratuko" dinoe orain arte bere alderdikide izandakoek.

Hainbat herritarren sinaduragaz bat, "Eneko Zarrabeitia euskal preso politikoaren herriratzea" eskatzen eban mozinoari "Talde Independenteko gainontzeko zinegotziek ez bezala" baiezkota emon eutsan Calaechevarriak. Hori da dimisioaren jatorria.

Zinegotziaren zintzotasuna nabarmendu dabe Talde Independenteko kideek

Talde Independentean, "gauzak desbardintzen badakigu, eta Luismi lagun izaten jarraituko" dabela azpimarratu dabe. Taldea sortzera eroan zituen filosofian sinesten jarraitzen dabela dinoe: "Abiatu zeneko leku berean segitzen dau Talde Independentek, eta edozein ideologiatakoa izan arren, gure filosofia onartzen daben edo herriaren alde lan egin gura daben herritar guztiak" gonbidatu ditue euren taldera. ■ I.E.

San Antonio Eguna ospatuko dabe bihar Urkiolako tontorrean

Zapatua dela aprobetxatuta, bisitari asko izango da 13an Santutegian

Ekainaren 13a, zapatua da aurten, Durangaldeko eta Bizkaia osoko hainbat bisitari Urkiolako Santutegira eroango dituen San Antonio Eguna. Tradizioari eutsiz, mezakizango dira zapatuan, 09:00etatik 13:00ak arte ordubetero, eta, 18:00etan eta 19:00etan.

Harriari bueltaka

San Antonio Eguneko ohitura nagusiari jarraituta, asko izango dira, zalantza barik, tradizioak agintzen dauen moduan harriari bueltak emongo deusienak. Aita San Antoniok bikotekidea topatzen lagundu deien.

Goizetik hasita, gainera, Abadiñoko Udalak eta Abeltzain Elkartek antolatzen dauen azokan, egun horretako tradizioaren parte diren produktuak dastagai eta salgai izango dira: erroskilak eta baserrietan ekoiztutako bestelako produktuak izango dira bisitariendako prestatutako erakus-mahaietan.

Urkiolako gaina girotzen, gainera, Jon Azpillaga eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak eta trikitilariak izango dira eguerdi partetik aurrera. ■ I.E.



Igazko San Antonio Egunean hartutako irudia. Judit Fernandez

Emakumeen eskola bat sortu guran, lehenengo pausuak emoten

Atzo izan zen, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan planifikazio estrategikoa diseinatu eta garatzea helburu izango leuen Emakumeen Jabe-kutzarako Eskola bat martxan jartzeko lehenengo pausatzat aurkeztzen dabena: *Zer da jabe-kuntza* izeneko hitzaldia eskaini eban Neus Albertosek Abadiñoko Errota kultur etxean.

Aitzindarien esperientzia

Herriko, emakume elkarteetako eta politikagintzako jentetaz landuko dabe, bestalde, ekainaren 17an, Emakumeen Jabe-kutzarako Eskolen arloan Bizkaian aitzindari diren Ermua, Getxo, Ondarroa eta Basaurin izandako esperientziak azaltzeko helburua dauen hitzaldia: Errota kultur etxean egin dabe hitzordua, ekainaren 17an, 17:00etan.

Emakume eta gizonen berdintasunerako pausuak emoten jarraitzeko, "aspalditik Jabe-kuntza Eskola sortzeko aukera" buruan darabileela azaldu deusku Udaleko teknikariak. Inguruko herrietan zein Abadiñon berdintasuna sustatzeko lanean dihardueen eragileen elkarriketa, eztabaida eta hausnarketarako zita da Errotakoa. ■ I.E.

IZEN EMATEA
Izen ematearen barnean dabil jaso daitezkeen duriak

EPEA: ekainaren 19a arte

GAZTE INFORMAZIO BULEGOA
Pinondo Plaza, 1

94 603 00 30
informazio@durango-udala.net

ASTELEHENETIK OSTEGUERA
10.00-14.00 / 17.00-19.00

OSTIRALETAN
10.00-14.00

LARUNBATA
20
EKAINA

DURANGO

mugarri eguna 09

IRTEERA Andra Mariño Elizpea
Pórtico de Santa María

ORDUA 8.00

IRAUPENA 5 ordu / 5 horas

Ibilbidea gidatua eta egokitua izango da.
Kontingentzia da bote egokiak eta ura eramatea.

Durangoko Udalak, Aipino Taldea munitzale taldearen laguntzarekin, **MUGARRI EGUNEN** X. EDIZIOA erori zailtasun gonbidatzen zaitu gure herria mugartien ezagutzeko, urteko urte eta etapaz etapa Durangoko mugartien ibilbide osoa burutu aitz.

Goleen egiteko itimaila gaitza da, Marfaria, Dima, Zorroza eta turtza herrien bidez atzera 21 mugart izateko.

IBILBIDEA
IBILBIDEA MUGARRI EGUNEN
Andra Mariño-errepetik, San Andres, Santa Luzia eta Mamiñi herrietatik.

MUGARRI EGUNEN OMBRENGA DE
Aizobila, Arantzabun, Gilela, Racoabatu, Hurriondu.



ATXONDO

Gaztetxeko beheko solairua jaietarako gertu edukiko dabe

Bigarren solairuan egin beharreko zenbait lan atzeratu egingo dira: udan zehar amaituko ditue

Herriko jaietarako kontzertuak eta gazteek antolatutako ditueen bestelako ekitaldiak egiteko erabilgarri izango da Gaztetxe barriztuko beheko solairua. Halan azaldu deusku Cobos alkateak; onartu egin dau bestalde, aurreikusi eben baino beranduago amaituko ditueela lanak.

Urtarrilean hasi ziren Gaztetxearen barrukaldea konpontzeko lanak, eta 100.500 euroko aurrekontua daukie. Lehenagoko fase batean, teilatua konpondu eben, eta lanen parte hori ekainerako amaitzea zen aurreikusitakoa.

Lanak hasita zegozela, baina, hainbat aldaketa egin behar izan ditueelako atzeratu ei da lanen amaiera data, eta jaietan Gaztetxea zabalik izan arren, udan zehar lanean jarraitu beharko dabe.

OTXANDIO

Hizkuntza eskubideen kexak jasoko ditue, buzoi bitan

Hizkuntza eskubideen inguruko kexak eta iradokizunak jasotzeko buzoi bi jarri ditu Udalak. Udaletxeko harreraren eta liburutegian ipinitako buzoietan, herritarrek inprimakiak be aurkituko ditue. UEMA arduratuko da jagokonari kexa bidaltzeaz.

Ekimen hori UEMAk eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiak Udalagaz daukien hitzarmenaren bitartez jarri dabe martxan. Otxandio Euskara Batzordeak hizkuntza eskubideak defendatzeko deia egin dau. ■ J. G.

Udaletxeko harrerako eta Liburutegiko buzoietan inprimakiak ipini ditue

IZURTZA

Udalean euskararen erabilera ontzeko Euskara Plana

Izurtzarren gehiengo oso handi bat (herritarren %70 baino gehiago) euskalduna delako, Udalean euskararen erabilera hobetzea helburu dauen Euskara Plana ipini gura dabe martxan. Horretarako egin eben Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMAko) kide Izurtza.

Udalean euskararen erabilera aztertu dau UEMako teknikariak

Izurtza lako gune euskaldunetan euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea da elkarte horren helburu nagusia, Udaletik bertatik hasita.

UEMAko teknikariak egin dako azterketaren emaitza eza gututa, “Udalean euskararen egoera hobetzeko” jarraibideak zehaztuko dituen Euskara Plana ipiniko dabe martxan, Lorea Muñoz alkateak dinonez. ■ I.E.

DURANGO

Trenaren lurperatzeari buruz galdetu dau Aralarrek



Durangoko trenaren lurperatzearen inguruko informazioa eskatu dau Eusko Jaurlaritzan Aralarrek. Durangon zinegotzi be baden Dani Maeztu legebiltzarkideak obraren egoeraren gainean, sortu den aparkaleku barriari buruz eta trenbidearen bikoizketari buruz galdetu deutso, besteak beste, Iñaki Arriola Herri-lan eta Garraio sailburuari.

Helarazo dabenez, trena lurperatzeko lanen ondorioz “sortutako kalte eta eragozpenak” jasan ditue azken urteetan Durangaldeko herritarrek, eta ezarritako bukaera-datak “behin eta barriz atzeratu dira”. Horren aurrean Aralarrek herritarrek “albait arinen” jaso beharko leukien informazioari buruz galdere sorta egin dau. “Gardentasuna” gehituko leuskio egitasmoari, dinoenez, eta herritarrei “lasaitasuna” emon.

ONA lortzeko helbide barriak

ONA osasun txartel elektronikoa zabaltzeko gune barriak egokitu ditu Durangoko Udalak. Holan, ekaina eta uztaila bitartean, Herritarren Arretarako Zerbitzuan (08:00etatik 14:00etara) ez eze, Landako kiroldegian eta Udal Liburutegian —liburutegiko erabiltzaileek bakarrik tramitatu leikie— be eskuratu leiteke ONA, 17:00etatik 20:00etara. Jada 1.000tik gora durangarrek eskuratu dabe txartela, eta laster gestino administrati-boak bulegoetara joan beharrik izan barik egin ahal izango ditue. Dinoenez, Udala informazino teknologikoen munduan sartzeko ahaleginetan “aurrerapauso handia” da, eta, bide batez, zerbitzu “hobe” eta “erosoagoa” emongo jake herritarrei.

DURANGALDEA

UEMA Eguna ospatuko dabe, bihar, Nafarroako Bera herrian

Adinez nagusia da UEMA. Udal Euskaldunen Mankomunitateak 18 urte bete ditu aurtan, jada 60 udalerrri batuz. Udalen zeregin garrantzitsu bat euskararen erabilera normalizatzea da, UEMako arduradunen ustez, eta horren alde egingo dabe zapatuan, ekainaren 13an, Beran (Nafarroa) ospatuko den UEMA Egunera batuetaoek. Arbola aukeratu dabe egun hori iruditatzeko, eta “euskaragaz bat egiten dauen oro” hartuko dabe bertan. Otxandio, Atxondo eta Mallabia UEMako kide dira. Hainbat ekitaldi izango dira Beran, goizean hasi eta iluntzera arte.

Bertsobirak makina bat lagun batu eban Mekoletan, euriari aurre eginez

Mekoletako jaiak giro ederrean pasatu zitueen otxandiarrek, joan zen asteburuan. Zapatuan, euriak ez eban Bertsobira oztopatzetik lortu. Unai Iturriagak, Igor Elortzak, Beñat Ugartetxeak eta Mikel Urdangarinek bertsotan jardun eben baserririk baserri.



GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON BERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODÓLOGA 188. Eraginidea

EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2009

EMAITZAK

	ERROLDA	ABSTENTZINOA		EAJ (EK)	EAJ (Galeusca)	II	HZ*	PSE-EE		PP		EA-ARALAR	EA (HE)	ARALAR	EB		UPD
		2009	2004	2009	2004	2009	2004	2009	2005	2009	2005	2009	2005	2005	2009	2005	2009
ABADIÑO	5.873	%59,64	%58,00	624	825	593	516	582	471	321	371	117	138	30	31	81	3
ATXONDO	1.203	%52,54	%51,86	220	257	208	162	77	61	20	35	28	28	8	2	7	1
BERRIZ	3.872	%56,74	%53,80	600	684	340	290	397	384	149	195	101	101	26	29	35	19
DURANGO	21.636	%56,23	%53,34	3.307	4.094	1.778	1.377	2.049	1.656	1.201	1.582	660	492	233	148	341	90
ELORRIO	5.907	%55,22	%51,26	817	1.049	773	680	480	502	243	362	254	167	59	21	84	6
GARAI	257	%40,81	%30,65	85	126	41	22	4	2	8	2	11	6	9	1	0	-
IURRETA	3.159	%56,54	%53,49	416	613	292	300	385	358	193	250	38	45	6	12	30	10
IZURTZA	218	%42,20	%35,54	52	66	60	61	6	10	2	5	4	8	2	1	3	-
MALLABIA	984	%52,74	%47,05	157	221	191	163	62	54	23	27	17	15	7	1	6	1
MAÑARIA	413	%40,44	%38,24	132	143	83	70	8	4	3	4	15	8	4	2	4	1
OTXANDIO	996	%42,97	%39,82	227	244	238	170	27	22	31	45	38	27	19	3	9	1
ZALDIBAR	2.390	%59,12	%54,22	255	356	213	194	265	280	141	158	57	40	9	9	33	8
Guztira	46.908	%51,26	%47,27	6.667	8.678	4.810	4.005	4.342	3.804	2.335	3.036	1.340	1.042	412	260	633	140

* 2004ko baliogabeko botoen datuak

ANALISIA

Iraungitze data

Mario Zubiaga
EHUKo irakaslea

Europako hauteskundee-tarako PSOE eta PPk aur-keztu dituzten zerrende-tako lehen bi euskal herri-tarrak beste inon kokatu ezin daitezkeen politikari naftalinadun horietarikoak dira. Biek ala biek ongi erakutsi digute kanpainan zehar bai Espainiako errealtatea, Mayorrek, eta baita Europakoa ere, Jaureguik. Espainian nagusi den iritzi publikoa ezagutzen genuen aspaldidanik, baina emai-tzen argira berretsi egin da: Espai-niako herritarren gehiengoak, integrismo erlijioso-linguistiko-nazionala onesten du. Don Jai-

meren azkenaldiko astrakanadak saritu egin ditu igandean.

Europako errealtatearen azalpen gordina, berriz, Jauregi jaunaren ahotik iritsi zitzaigun kanpainan. Zapaterok profil baxu-ko lehendakaria behar zuen feli-pismoa kontrolpean mantentze-ko, Patxi, eta lehen lehendakari sozialista izateko jaioa zen Ramon, elefanteen hilerria bidali du. Hots, Europara. Alabaina, elefante zaharrak jakintsuak izan ohi dira, oso jakintsuak. Hala, bi perlatxo eskaini zizkigun joan den astean argitaratutako elkar-rrizketa batean. Hala zioen Jau-reguik: “El conflicto vasco no se arreglará en Europa, que no inter-ferirá en el entramado interno español”. Zuzen dabil buruzagi sozialista. Alde batetik, esangabe onartzen duelako euskal gatazkak “Estatuaren barne egiturarekin” zerikusi zuzenekoa duela, eta hortaz, ez dela soilik poliziari dagokion afera. Baina bigarre-nik, ongi zehazten duelako zein den nazioarteko ingurunearen eragina horrelako kontuetan: ez dezagun pentsa gatazkaren kora-piloaren askatzea Europako begi-rale, ikuskari edo ezkutuko itu-nen aingeru kustodioen esku dagoenik.

Auziaren irtenbidea hemen dago, ez European. Nazioarteko eragileek lagun dezakete, noski, baina aldaketa politiko sakona nahi dutenen intelgentzia poli-tikoa da giltzarria, esango nuke, baita arerioaren borondatearen gainetik ere. Intelgentzia horrek behar duen zoru politikoa bede-ren ezarri da hauteskunde hauetan.



J.F.

Jaureguiren bigarren ekar-pena lehena bezain argigarria da: “El nacionalismo tiene un papel deslucido en Europa, no está en los grupos decisorios”. Abertzale-tasunak urte asko eman ditu, gehiegi, Europa idilikoan sines-

ten. European, munduan, eragileak Estatuak dira, eta kito. Beste buru-tazio guztiak inozoentzako jostailu erreterikoak dira, ez besterik. Herrien Europa??? Milonga zahar-kituak ahaztu behar ditugu behin-go, eta Estatuaren mundu hone-tan Estatua errebindikatu. Zuzenean, erdibiderik gabe. “Nacionalismo” kontzeptua bera arbuia eta independentismoa-

ren bandera hartu, beste sozia-lista katalan zuhur batek—Rubert de Ventosek—aspaldian iradoki zigun moduan. Euskal Estatua nahi dugun independentisten indarrak batu behar dira eta ber-ton hasi etorkizuna eraikitzen.

Ezin gintezke gal kimera euro-federal horretan, ezin gara egon nazioarteko salbatzaileen—deus ex machina—zain gatazka politi-koa konpontzeko.

Hauteskunde hauek, hitz jokoarekin jarraituz, “deus ez” izan daitezke: Izaskun Bilbao, Jaurilaritza zaharraren “euskal enbaxadak” galduta, inoiz inon egon ez den “herrien Europa” horretan erromes, eta Irazabalbei-tia jauna, aldi bateko enbaxado-re meneko gisa. Hala, “makina bat” aukeratarako irakaspen bila-ka daitezke. Beti ere, Ramon Jau-reguik—Europa zer den—, eta Jai-me Mayorrek—zer den Espainia—gardenki erakutsitako azjabetzen bagara. Ahalik eta azkarren. Iraun-gitze data: 2009ko udazkena.

European eragileak estatuak dira; beste burutazioak inozoentzako jostailu erreterikoak dira

HERRIRIK HERRI ATALAREN BABESLE

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia

BERBAZ >

Markel Ganboa •

- 19 urte
- Durangaldeko Iratzarriren koordinatzailea



Iban Gorriti

“Gazteon arazoei ezkerretik aurre egin gura deutsegu”

Durangaldeko Iratzarrik prentsaurrekoa eskaini dau taldearen helburuak azaldu eta parte hartzera deitzeko

Gazteek daukiezen preminei erantzun guran Iratzarrik taldea sortu dau Durangaldean. Markel Ganboa dogu eskualdeko koordinatzaile. 18 urteko durangar honek gazteak mobilizatzeko deia egin dau, “arazoak beste batek konpontzea itxaron beharrean modu aktiboan ekiteko”. Iratzarri gazteen bilgune izatea gura dabela azaldu deusku.

Zelan sortu da taldea?

Orain urte bi Durangaldeko gazte talde bat elkartu ginen gazteon egoeraren gainean hausnarketa egiteko. Sasoi haretan hainbat hitzaldi antolatzeari ekin geuntsan.

Zer helbur daukaz taldeak?

Gazteon arazoak eta ardurak ezkerretik konpontzeko sortu da taldea. Gazteon artean eztabaida sotzeari be garrantzitsua deritzogu. Kapitalismoa krisi sakonean dagoen hone-

tan, beste sistema baten alde egiteko garaia da.

Gazteak mobilizatu gura douezela aldarrikatu dozue.

Gazteen parte-hartze aktiboa bultzatu gura dogu. Gazteok oso pasiboak gara hemen. Ezkerraldean edo Bilbo aldean gehiago mobilizatzen dira. Hasteko, Bizkaiko Iratzarrik emondako pausoak emoten dihardugu.

Udalek gazteen arloan daukien jarrera kritikatu dozue.

Ez daukagu lekuri gure zale-tasunen inguruan batu ahal izateko. Durangon, esate baterako, ez daukagu kultur etxerik. Gatxa da elkartzeko leku bat topatzea. Adibide legez, Pinondo Etxean gela bat eskatu dogu, baina ezin zeinke batzartu. Joan zen asteko aurkezpena egiteko prentsaurrekoa emon gura genduela-etabe, azkenean, polikiroldegian egiten amaitu behar izan genduen.

Aisialdirako eskaintza nahikoa dagoela deritzozue?

Kirol arloan eskaintza zabala dago. Kultur arloan, barriz, beste aisialdi mota bat ez da bultzatzen.

Zeintzuk dira gazteen gabeziak?

Lokal gehiago sortzeaz gainera, babeseko eta alokairu sozialeko etxebizitzak bultzatu gura doguz. Gazteondako gatxa da etxetik irtetzea.

Parte hartzeko deia egin dozue.

Gazteria inplikatu eta gugaz bat egitea gurako geunke. Iratzarriko kide izateko ez da zertan Aralarreko kide izan. Gura dauenarendako zabalik dago. Bestelako Durangalde demokratiko, euskaldun, antiarrazista, feminista, ekologista, antikapitalista, sozialista eta internazionalista posible eta beharrezkoa da.

Hainbat azpiegitura proiekturen inguruko eritzia emon dozue.

Garroña ixtearen aldekoak gara,

eta arlo horretan mobilizazioak bultzatzen dihardugu. Boroako zentral termikoaren kasuan, eztabaida baztertu gura dabe eta herritarren eritzia ez dabe kontuan hartu. Eztabaida sustatzearen aldekoak gara herrietan galdeketak eginez.

AHTaren kasuan?

Guztiz aurka gagoz. Ez da proiektu sozial bat; gitxi batzuen proiektua da. Elkar-lanean lanean gabilz, AHTaren kontra dogun jarrera erakusteko. AHTaren aurka egon arren tren sozialaren aldekoak be bagara. Trenbide sarea erabat aldatu beharra dago.

Lan arloan zelan ikusten dozue gazteak?

Lan arloan prekarietatea da nagusi: 1.000 eurotara heltzen ez diren soldadak eta lan baldintzak eskasak. Sindikatuekin batzartu gara, eta emon deus-kuezen datuak penagarriak dira. ■ J.G.

“Lokalak eta babeseko etxebizitzak behar doguz”

“Gazteriak taldean parte hartu eta gugaz bat egitea gura geunke”

EKONOMIA[>]

>DURANGALDEA

Berrikuntza programen gainekoak berbagai

‘Berrikuntza Agenda’ programa aurkezteko jardunaldia eratu dau, ekainaren 26rako, Durangaldeko Behargintzak; berorren abantailez jardungo dabe

Durangaldeko Behargintzak antolatuta ‘Berrikuntza Agenda’ programa aurkezteko jardunaldia egingo dabe datorren ekainaren 26an, 09:00etatik 11:30 arte. Innobazioaren gainean aurten eratutako bosgarren jardunaldi horrek ‘Berrikuntza Agenda’ programan parte hartzeak dakarzen abantailak jakinarazotea dau helburu. Era berean, enpresak berrikuntzaren eremuan daukan profilari eta egoerari buruz hausnarketa egin gura dabe, eta barritzeko erreferentzia izan leitekezen esperientziak trukatu, antolatzaileek adierazo dabenez.

Durangaldeko enpresak berritzaileagoak izan daitezen laguntza eta ekimenak aurkeztuko ditue

Ekainaren 19a artekoa da programan parte hartzeko izena emoteko aukera

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Sprigaz elkarlanean bultzaturiko programa da, eta “enpresen lehia-kortasuna bermatzea” dau helburu. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) enpresa txiki eta ertainei eskainitako laguntza eta ekimenak aurkeztuko ditue Durangaldeko Behargintzan izango den jardunaldian, eskualdeko enpresak barritzaileagoak izan daitezen: “Barrikuntza sistematikoa enpresan txertatzeko”. Parte hartzeko ekainaren 19a artekoa da izena emotea: 94 623 25 22/ berrikuntza.mdurango@bizkaia.org

Automobilaren kongresua Boroako AIC Center-en

Espainia eta Alemaniako automobilaren kongresua hasiko dabe, ekainaren 17an, Boroan, Automotive Intelligence Center-en (AIC). Automozinoan diharduen enpresetako zuzendariak dago zuzenduta kongresua. Horren baitan, eguaztenean Mercedesaren Gasteizko lantokira bisita egingo dabe. Bestalde, ekainaren 18an eta 19an, sesino presentzialakegingo ditue Automotive Intelligence Center-en bertan. Besteak beste, gaureguno ekonomiaren egoera nahasia eta horrek automozinoan daukan eragina izango dabe aztergai. Horren gaineko hausnarketa eta jorratu leitekezen bide barriak hartuko ditue berbagai jardunaldiotan.

■kolaborazioa



Aitor Iturriaga
LAB sindikatua

Izengabeen inizatiba espainolekin bat

Europako Hauteskundeak iraganda, berorren ajeak gainetik kendu ezinik darraigu. Baliabide urriekin, estatu aparatu guztia gainean, baina inizatibari eutsi diogu. Zailtasun eta oztopo guztien gainetik, izengabeen kastak, izana baduela berretsi du. Gutxi garela diote, baina, milaka bozka lapurtu dizkigute. Irregularitatez jositako kontaketa prozesuak, estatu bananero honen miseriak azaleratu ditu. Galdetu Amezketa izengabeen nork lurperatu dituen ikustezin bihurtzeraino. Urteetan zehar ezker abertzaleari gehiengo nabarmenarekin sostengua eman dion Gipuzkoako herri txiki horretan POSI-k irabazi du, izengabeek bozka bakar bat ere eskuratu ez dutelarik. Mirariak Lourdesen! Espainiako inperioan barrena arazoa larriagoa da. Ikuskatzaileen faltan, inperioko nazio ugarien elkartasunezko arnasa helaraztea ekidin nahi izan dute, nahiz eta horretarako bozka baliogabeen estatistika puztu behar izan. Miserableak!

Sekula makurtu ez den 81 urteko gizaseme maitagarri bat eta “espainiar” koadrila bat etorri behar izan dira, izengabeen, etxean ukatzen diguten aterpea ematera. Elkartasunezko hitz huts eta salaketa antzuetatik haratago, “espainiar” horiek beraien etxean eman digute ostatu, jana, edana eta ohe umil bezain bero bat eskainiz. Badute zer ikasi gure anai-arrebek kanpotar horiengandik!

Hauteskunde hauek, zenbaiten ipurdia agerian uzteko ez ezik, ezkerren baloreak berreskuratu eta inperioko nazio eta herri ugarien elkartasunezko hariak trinkotzeko baliagarriak izan dira. Balio dezala, beraz, etxean ere, aurrera begira ditugun erroken, partidu eta sigla desberdinetatik gaindi, herri gisa jardun eta erantzuteko.

Azken finean, faxistek nahi ez duten arren: Araban bagare, Gipuzkun bagera, Xiberun bagire, eta Bizkaian bagara... izengabe baina bizirik, noski. Eskerrik asko, Alfonso!

>IURRETA

Iban Francok jaso dau GLHB institutuaren Iurreta Saria

Iban Francori emon deusie aurtun Iurreta Saria. Euren jardunean nabarmenagaitik, besteak beste, ikasle ohi edo enpresa laguntzaileei emoten deusie saria Iurretako Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariatzko Institutuak, eta aurtun ikasle ohiak “garatzen ditueen ibilbide profesional nabarmenak” goratu gura izan ditue. Ildo horretan, Iban Franco jo dabe “eredugarri”, bere jardura profesionalagaitik. Tomas Maguregi institutuko zuzendariaren eskutik jaso dau saria Renault Gaursan programazino teknikari den 35 urteko gazteak. Praktikak amaitu ditueen ikasleei be diploma emon eutseen ekitaldi horretan.



Tomas Maguregi institutuko zuzendariaren eskutik jaso dau saria Iban Francok. Iban Gorriti

EXCAVACIONES JON

MOTATUZHITULAKO INDUSTRIAK HONDAKINDEGIA

Jon Guriagotia Guriategui

PROIEKTAZIOA • BOK • ZIBERNA • BOKERIA • BOKERIA • BOKERIA

TEL: 946 11 20 04 • FAX: 946 11 20 05

ZARATE ELEXP
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

KULTURA[>]

Argazkia: Judit Fernandez

MUSIKA > EMANALDIA

'Aitonaren urtebetzea' operetaren estreinaldia

Ia bi urte prestatzen jardun duten lanaren estreinaldia egin zuten, joan zen barikuan, Durangoko San Agustin kulturgunean Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasle eta irakasleek. *Aitonaren urtebetzea* opereta eskaini zuten bariku eta zapatu iluntzean kulturgunean.

Siessmayr konposatzaile austriarrak sortutako *Das Namerfest* operaren moldaketa da Durangoko musika eskolako Agurtzane Mentxaka eta Irati Ortubia irakasleek musika eskolako ikasleek jotzeko moduan moldatu dutena.

Jatorrizkoan alemanieraz den operari euskarazko elkarriketak gehitu dizkiete irakasleek. Horrela, *Aitonaren urtebetzea* opere-

ta da sortu dutena, eta musika eskolako 80 musikarik eta kantarik jo, abestu eta antzeztu dute.

Musika eskolako gazteen orkestra, eta eskolako haur eta gazteen abesbatzak izan ziren XVIII. mendean kokatutako istorioaren instrumentuen eta ahotsen bitartez eskaini zutenak.

Bereziki lan gogorra izan dute azken asteetan musika eskolako 80 ikasle opereta prestatzea. Ikasurtea amaitu orduko, baina, eskolan egiten duten lana erakutsiko dute musika eskolako aretoan egingo dituzten kurtso amaierako ekainaren 16 eta 17ko kontzertuetan. Musikaren Europako Egunean, ekainaren 18an ere, Andra Marian dute emanaldia. ■ I.E.

Ekainaren lehenengo asteburuan izan ziren operetaren emanaldi biak

12 > Tanttakaren aurre-estreinaldia

Tanttaka antzerki taldearen azkenengo lanaren aurre-estreinaldia egingo dabe ekainaren 16an, 20:30ean, Durangoko San Agustinen.



13 > Muted-en lan berria: Inox

Hirugarren diskoaren aurkezpen kontzertua du bihar Durangoko Plateruenean Abadiñoko Muted taldeak. Eurekin izan gara disko berriaz hizketan.

ANTZERKIA>

'Tatami' obra Durangon aurre-estreinatuko dute

Ekainaren 16an, San Agustinen egingo dute Tanttaka taldearen lanaren aurre-estreinaldia

Madril eta Tokio arteko hegazkin bidaia batean gertatzen den istorioa da Tanttaka antzerki taldearen *Tatami* antzezlanean jasotzen dutena. San Agustin kulturgunean ezohiko egun batean izango da emanaldia: ekainaren 16an egingo dute *Tatami* antzezlaren aurre-estreinaldia. Martitzenean 20:30ean da hitzordua.



El Florido Pensil antzezlana oholzaratzen hainbat urtez jardun duen Tanttaka taldearen azken lana ikusteko aukera da, beraz, martitzenean primizian duguna. Hegazkin bidaian aldamenen doazen biezazagunen istorioa da, euren elkarriketarena.

Ainara Arnedo eta Gorka Aginagalde dira San Agustinen arituko diren antzezle ezagun biak, eta elkarriketa jostalari eta garratzak zein aitorpen eta gogoetak egingo dituzte antzezlanean.

Filologia hispanikoan lizentziaturiko neska batek eta *voyeur* lotsagabe samarra den gizon batek elkar ezagutzen duten unea da antzezlanean kontatzen dena eta Fernando Bernues eta Kike Diez de Radak zuzendurikoa. ■ I.E.

Ainara Arnedo eta
Gorka Aginagalde dira
'Tatami'-n antzezle

MUSIKA>

Txistuz jotzeko lan berrien estreinaldia San Agustinen

Durango, Udalak eta hainbat elkarte antolatzen duten Euskal Astearen egitarauaren barnean, ekainaren 13an 20:00etan San Agustin kulturgunean egingo du Silboberri txistu elkarteak ekitaldia. Txistuz jotzeko sortutako lanen lehiaketaren V. edizioaren sari-banaketa ekitaldia eta txistu kontzertua izango dira Durango Hiria emanaldian.

Txistuz jotzeko sei lan estreinatuko dituzte ekainaren 13an

Doako sarrera izango duen emanaldian, txistua eta pianoa zein flauta eta pianoa uztartzen dituzten interpreteen kontzertuak ere izango dira.

Nafarroako hiru euskalkantak, *Ihardunetan*, *Bizkaia*, *Urdinpean*, *Sokamutila* eta *Sonata nº 6* obren estreinaldiak dira San Agustinen izango direnak. Ondoren, flauta eta pianoa uztartzen dituen Duo Icerberg taldearen emanaldia izango da.

GEURE DURANGALDEA

Duela 200 urte Garai



Fermin Barcelo
Irakaslea

"En la espalda Meridional de la gran sierra de Oiz, disfrutando vellas vistas, aires puros y sanos tiene situacion la Anteiglesia de Garai, que denota altura, con escelentes pastos para cria de ganado, Montazgos, argomales, canteras de piedra areniza, castaños, manzanales, gran copia de Cerezos, y fuentes de aguas frias, siendo la de Arroitaganeua sulfurua purgante."

Horrela eman zion hasiera Iturrizak Garaiko deskribapenari: bere kokapen ikusgarria goraipatzen. Eta, handik gutxira, haren "pisua" neurtzen: eserleku bat Gerediagako Batzarretan, eta 36 fogera. Harrigarria, benetan, 36 fogera baino ez dituen herri "txiki" batean bi eliza erraldoi ikustea, bata bestearen ondoan. Parrokia bi, beraz, patroï, abade eta eliztar ezberdinekin.

Abadiñoko parrokiari lotutako San Migel, alde batetik, hango patroïak jarritako abade batekin; "...y en su Parroquiana 32 Casas con 150 personas de Comunión, vn Molino, vna taberna, y vna hermita dedicada á S.n Juan Bautista en Momoitio, donde existen quatro lapidas sepulcrales."

Bigarrena, bestalde, Berrizko parrokiari lotutako San Juan Evangelista, aurretik 500 pausotara, beste abade eta patroï bat dituela, eta eliztar propioekin: "...y tiene en su feliglesia 21 Casas con 96 personas de Comunión, vna ferreria, dos molinos, y vna hermita dedicada a Catarina V.yM. fundada por la Casa de Duñaiturri, y reedificada el año de 1773."

Herri bakarra, eta ez oso handia, baina, hala ere, bi parrokia.

LITERATURA> SARI BANAKETA

Aurkeztutako 360 lanen artean saridun hautatuak

Joan zen domekan izan zen Durangoko San Agustín kulturgunean Julene Azpeitia Lehiaketaren Sari Banaketa. Guztira, 360 izan dira aurtengo edizioan aurkeztu diren lanak. Sarituak, berriz, euren bertso, olerki zein ipuinak bidali dituzten 19 lagun izan dira. Aurten lanak mezu elektronikoz bidali ahal izan dituzte parte hartzaileek lehenengoz.

Adinez nagusien sailean, iaz ere irabazle izan zen Jon Ander Urkiaga izan da bai bertsoen bai olerkien sailean saritua: *Luzea da gure lurra* bertso sorta eta *Herdoilarenak* olerkiagaz.

11 eta 17 urte arteko idazleen artean Paule Alzaga, Leire Rodriguez, Markel Arbulu, Arnaitz Iriondo, Dana Alonso, Elene Landia, Martin Gabiria, Ane Aja, Iñaki Barandika, Alba Oleaga, Delina Asteinz, Eneko Sagardoy, Nerea Aizpurua, Iker Mendiolaigarai, Igor Uruburu, Ander Sagardoy eta Garazi Sarrionandia izan dira sarituak.



Judit Fernandez

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

EKAINAK 12 22:00etan
MALLACAN +
GEN + DRAPS
Sarrera + CDa: 7 euro.

EKAINAK 18 22:00etan
MALCOM SCARPA
Pop, Blues, Swing, Folk,...
Sarrera doan.

EKAINAK 13 22:00etan
MUTED + ARMY ARMA
Sarrera: 5 euro.

EKAINAK 19 22:00etan
DJ PATT (Txitarro) +
PLATERUENA RESIDENT DJak
III. GAU ELEKTRONIKOA. Sarrera: 5 euro

EKAINAK 14 19:00etan
TERROR + BORN FROM PAIN +
STICK TO YOUR GUN + TRAPPED UNDER ICE
Sarrera: 15-18 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300



**iHABIA UNA VEZ...
DOS PIES!**
Teatrino dei Piedi
(Italia)



TATAMI

Tanttaka Teatro

Ekainak 16
asteartea 20:30ean


Ekainak 14
igandea 18:00etan

San Agustin
KULTUR
GUNEa
DURANGOKO UDALA



udako 09

gehigarria



anboto

Babesleak:



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia
Kultura
Leizaola
Departamento
de Cultura



ATXONDOKO
UDALA



BERRIZKO
UDALA



DURANGOKO
UDALA



Elorrioko
udala



GARAIKO
UDALA



IURRETAKO
UDALA



MALLABIKO
UDALA



OTXANDIOKO
UDALA

Udan udalekuak

Eskualdetik urten barik, gaztetxoei zuzendutako ekintza mordoa izango dogu udan. Ohikoez gainera, badira urtero errepikatzen diren ekimen jarraitu eta programatuak be, aisialdia eta hezkuntza batzea helburu dabenak: Udalekuak, berba batean esanda.

Gaztetxotan hiru hileko oporrek askorako emoten dabe. Baina denpora asko izatea alperrik da, berau zelan aprobetxatu jakin ezean. Zenbat ordu emon ete dogu orain nagusitxoago garen denok, sasoi batean, herriko plazan jarrita pipa-jaten, eguzkitan kiskaltzea beste denborapasarik ez geunkala. Horregaitik, ez da harritzekoa gaur egun udalekuek daukien arrakasta. Dibertimendua eta lagun barriak egiteko aukera eskaintzen dabe. Ildo horretako eskaintza anitza dogu Durangaldean.

Udaleku asko, Abadiño, Mallabia, Garai, Durango eta Elorriokoak, Berbaro euskara elkartearen eskutik jatorkuz. Abadiñon 3-6 urte arteko-entako antolatu ditue uztailearen 1etik 17ra. Guztira, 70 gaztetxok emon dabe izena. Goizeko eskaintzez gainera, egun osoko irteera bat be egingo dabe. Nobedadeen artean, aurtan lehenengo, Traña-Matienako eskoletan egingo ditueela azpimarratu beharra dago; ez Zelaietan, orain arte legez.

Mallabian oraindino zabalik dago izena emoteko epea: ekaina-

Berbarok hainbat herritako udalekuak kudeatuko ditu, eta baita eskualdetik kanporako beste hiru antolatu be



Durangokoak Landako eskolan eta institutuan garatuko dira, 'Uda topera' izenburupean

Atxondokoak Marixurrike elkarteak antolatu ditu; jolasak eta tailerrak egingo ditue, besteak beste

ren 17a arte egin leiteke Kultur Etxeko liburutegian (3-12 urte). Udalekua uztailearen 1ean hasi eta 23an amaituko da. Egund osoko irteera bat eta igerilekurako bi egingo ditue, Garaiko gaztetxoekin batera.

Garain 19 gaztetxok emon dabe izena. Udalekua ekainaren 29tik uztailearen 17ra garatuko da Otea-Loran soziedade alboko lokaletan; plaza eta pilotalekua erabiliko ditue hainbat ekintza eta jolas burutzeko.

Uda topera

Durangon 'Uda topera' izenagaz udaleku bi dagoz aukeran: hilabete-koa bata (ekainaren 29tik uztailearen 29ra), aste bikoa bestea (ekainaren 29tik uztailearen 10era). Ekintzak hiru adin tarteren arabera banatu ditue: 3-6, 6-10 eta 11-14 artean. Lehen adin tarte bietakoak Landako eskolan egongo dira; nagusienak,

barriz, Fray Juan de Zumarraga institutuan batuko dira.

Berbarok Durangaldetik kanporako hiru udaleku be antolatu ditu. Osaetako aterpetxean (Araba) udaleku finkoak egingo ditue, uztailearen 1etik 11ra, 34 gaztetxogaz. Beste aukera bat 'KTG Kanpaldia' udaleku ibiltarian parte hartzea da (uztailearen 19tik 30era); Bermeon hasita Castroraino. Ekimen hori Lasarteko euskara elkarteagaz elkarlanean antolatu dabe. Elkarlanaren fruitua da 'Kosta ala kosta' udaleku ibiltaria be; Berbaro eta Lasarteko euskara elkarteaz gainera, Arrasatekoak eta Bergarakoak be saltsan sartuta dagoz; 31 gaztetxok parte hartuko dabe Bermeon amaituko den udalekuan (uztailearen 6tik 17ra).

Atxondoko udalekuak Marixurrike elkarteak antolatu ditu.

otxandioako igerilekuak





Bi dagoz aukeran: uztailaren lehenengo hamabostaldian eta bigarren (4 eta 14 urte artekoentzako): jolasak, ibilaldiak, kantuak... gustu guztiak asetzeko kolore guztietako ekintzak egingo ditue.

Zaldibarko udalekuak eskoletan garatuko dira. Jokoak, tailerrak, eskulanak eta irteerak egingo ditue, uztailaren 13tik 24ra.

Berrizen hiru ekintza antolatu ditue DBHko 1. mailatik 4. mailara artekoentzako. Uztailaren 8an zaldi gainean ibiltzen ikasi leiteke Berrizko Dukiena elkartearekin; uztailaren 15ean surfa, skatea eta snorkela egingo ditue Sopelako hondartzan; uztailaren 22an, azkenik, abentura bidaia

(arku-tiroa eta kanoa) egingo dabe Araban. Izen-emotea ekainaren 19a artekoa da, Udaletxean.

Elorriko Yes akademiak ingelesean osatu dabe 'Uztaila oparo 09' programa. Berbarok kudeatuko dituenetan 172 gaztetxok emon dabe izena.

Elorriko Yes akademiak ingelesean eta euskara uztartzen dituen udalekuak antolatu ditu. Izena emoteko azken eguna ekainaren 19a da, akademiak Nizeto Urkizu kalean daukan egoitzan. Lourdesko ama ikastetxeak kirola eta osasuna batzea erabaki dau aurten. Honako helbidean apuntatu leiteke: (lourdeskoama@hotmail.com).

Elorriko elkarte eta eragile askoren lanagaz eratu ditue kanpamenduak; aukera benetan zabala dago



Intxortak Lezaunen udaleku finkoa egingo dau, eta Gaztetxeak hainbat ekintza prestatu ditu

Intxorta asti taldeak kanpamendu finkoak egingo ditu Lezaunen (Nafarroa) uztailaren 6tik 17ra. Gaur da izena emoteko azkenengo eguna, 18:00etatik 19:00etara, Intxortak Iturri kultur etxean daukon lokalean.

Gaztetxeak, berea aldetik, hainbat ekitaldi antolatu ditu 'Amalurra defendatu' izenburupean. Gaztetxean bertan emon leiteke izena, ekainean zehar. Uztailaren 5ean puentinga egingo dabe Azkaraten; hilaren 9an Argazki Txapelketa amaituko da; 10ean, 11n eta 12an kaleko futbito txapelketa jokatuko dabe; 15ean 'Jaizkibel bizirik' izeneko hitzaldia; uztailaren

31tik abuztuaren 2ra doan asteburuan, barriz, Piriniotara irteera.

Aitatuko guztiaz gainera, 'Zaldi beltz' udako ikastaroa be egingo dabe, uztailaren 3tik 16ra edo 17tik 30era. Aukera paregabea zaldiak gustuko dituenarentzat. Azkenik, Iturri kultur etxeak film laburren inguruko ikastaroa antolatu dau uztailaren 7tik 10era. Izen-emotea ekainaren 26a artekoa da, kultur etxean bertan.

Mañarian, azkenik, lau eta hamar urte bitarteko gaztetxoentzako udako kanpamenduak antolatu ditue. Izena emoteko epea ekainaren 30a artekoa da, Udaletxean edo Liburutegian.




Uda freskatzeko aukera ederra eskaintzen deuskue Atxondoko eta Otxandioko igerilekuek

irekita
ekainaren 13tik
irailaren 13a arte

**atxondoko
igerilekuak**

ordutegia
goizeko 10:00etatik
arratsaldeko 20:00ak arte





POL-POL

Barrenkale 19 -Durango

Tel.: 94 620 29 69

**Gosariak 06:30etik aurrera.
Pintxoak. Kafeak. Terraza
zerbitzua 16:00etatik aurrera.**



KAFE KANTOI

Learreta-Markina kalea, Berriz

**Ingurune paregabea terraza
eder bat gerizpean zein
eguzkitan egoteko.
Gosariak eta gosariak,
goizeko 07:00etatik aurrera.
Aukeratu Kantoitaberna zure
momentu onenatarako!**



MOMOTXO

Plateruen plaza - Durango

Tel.: 94 681 10 06

**Jateko zein egoteko leku
paregabea. Jateko:
kazolatxoak, bokatak,
entsalada bereziak...
Egoteko: terraza nahiz
barruko txoko berezietan.
Etorri zaitez Momotxo
tabernara!**

GANEKOETXE

Elizondo, z/g-Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Antzinako baserri baten ondoan gerizpe gozoan, etxeko moduan sentituko zara. Kartatik plater bat gomendatzen dizugu: arrain errea. Astegunetan eguneko menua.



PARRA TABERNA

Gernikako Arbola, 2-Elorrio
Tel.: 94 682 13 81

Gosariak 07:30etik aurrera. Egun guztian zehar pintxorik onenak eta mota guztietako musika. Exposaketak. Giro ederra. OSASUNA, ASKATASUNA ETA BERDINTASUNA!!

e-maila: parra@parrataberna.com



TIMBA

Herriko Gudarien kalea, 8-Durango
Tel.: 660 552 021

Gosariak 08:00etatik aurrera. Tapak. Afariak asteburuetan. Koktel kubatarrak aukeran. Jan-edanerako gune aparta egun osoan zehar.



Urteroko jendetza hartzeko gertu dagoz hondartzak



Udako denporaldiagaz batera, hondartzak jentez lepo daukaguz. Zerbitzuak prest daukiez bisitariak oporraldi bikaina pasatu daien.

Bizkaiko kostaldeko 28 hondartzak gertu dagoz 2009ko denboraldiari aurre egiteko. Irailaren 30era bitartean, milaka lagun gerturatuko dira Bizkaiko itsasertzerara. Hondartzak bisitarien zain dagoz, beraz, toalla hartu eta txoko bat topatzea baino ez da falta. Eguzkia lagun izatea itxaroten dabe kostaldean uda lanean pasatuko daben ostalariek. Kisiak bezeroen poltsikoetan eragin ete dauen laster ikusiko dabe.

Hondartzak garbi eta beharrezko zerbitzuekin mantentzeko, Aldundiak 5,6 milioi euro inbertitu-

ko ditu. Hondartza guztietan, dagoeneko, jarri ditue bisitariendako zerbitzu guztiak martxan. Bizkaiko hondartzetan 199 dutxa, 58 iturri, 917 paperontzi eta 52 oin-garbitegi jarri ditue.

Hondartza guztiak txukun mantentzeko, garbiketa zerbitzuan 89 lagunek oporrak hartu beharrean lanean jardungo dabe.

Azti-Tecnalia

Denboraldi honetan, Aldundiko Ingurumen Sailak ituna sinatu dau Azti Tecnalia teknologia zentruagaz

Bakioko kostaldean bideo kamerak jarritz itsasoko klima eta batimetria aztertzeko. Ikerketa horretatik ateratako ondorioak aztertuta, hondartzaren bilakaera hobeto ezagutzea da helburua. Kostaldeetako sistemek zelan jokatzin daben eta itsas pasealekuetako uholdeak, hondartzaren eraketa ikerketzeko Kosta System sistema erabiliko dabe.

Gurutze Gorria

Urtero lege, Gurutze Gorria hondartzetako salbamendu zerbitzuaz arduratuko da, irailaren amaierara arte. Guztira, 84 soroslek hondartzara doazen lagunak zainduko ditue.

Kanpainak

Denboraldi hasiera honetan, hondartza bakotxean gidak banatuko ditue inguru horri buruzko informazio guztiagaz. Hondartzetako

Hondartzen inguruko zerbitzuak azaltzeko gidak banatuko ditue

Bakion, itsasertzaren bilakaera aztertzeko, hainbat kamera jarriko ditue

garraio publikoaren, dutxen, aldagelen, sorosleen eta gainerako zerbitzuen datuak eskaintzen ditue.

Kono-hautsontziak banatzeko kanpaina be martxan jarri dabe. Hondartzetan erretzaileek tabakoa hareatzara bota beharrean konoketan gordetzea da kanpainaren helburua. Aurten 10.000 kono-hautsontzi emongo ditue.

Kalitate ziurtagiria

Hondartzek eskaintzen daben zerbitzua ahalik eta onena izan daiten Isuntzak, Ogellak, Arrieta-Atxabiribilek, La Arenak, Bakiok, Laidak, Lagak, Karraspiok, Plentziak eta Arrigorrik ingurumen eta kalitateko ziurtagiria daukie (UNE ISO 14001 eta UNE ISO 9001).

Aurtengo kanpainan, Ereaga eta Arrigunagako hondartzak be kalitateko ziurtagiaren zerrenda horretan jarri ditue.

Prestatu uda



EROSKI

40. zurekin

ABADIÑO



Krisi sasoiari aurre eginez, inoizko bidaia merkeenak

Uda laneko ardurak alde batera itzi eta oporrak behar den moduan aprobetxatzeko sasoi izaten da. Maletak egin eta edozein leku bisitatzea izan leiteke aproposa. Bidaiazteko hamaika aukera daukagun arren, bakotzak daki norberaren bizimodura egokitzten den bidaia zein izan leitekeen.

2009ko udan moda-modan dagoen bidaia Asia eta New York dira. "Indonesia, Birmania, Thailandia eta Bali jente asko erakartzen dau", dino Iberia Bidaietako

Juanan Jiménezek. New Yorken kasuan, barriz, hegaldi eta hotelen prezioak jaitsi ditueenez, eskaintza oso onak topatu leitezke.

Halan be, udako klasikoa den hondartzako eskaintzak be ez dau hutsik egingo. Kanariar Uharteak, Andaluzia, Valentzia eta Mediterraneo dira gertuen daukaguzen adibideak. Dominikar Errepublika eta Jamaika be jente askok aukeratzen ditu. Mexikon be normaltasunez lan egiten dihardue la azaldu deuskue.

Familian bidaiazterakoan hainbat faktore kontuan hartu behar izaten dira. Aspaldian familia askok itsasoak zeharkatuz kruzeroan joatea gura izaten dau; batetik, umeek ez dabelako ordaindu behar eta, bestetik, itsasontzian hamaika ekin-tza antolatzen ditueelako.

Europar zehar Croaziara geroago eta turista gehiago joaten da. Grezia eta Eskozia be ez dira atzean gelditzen.

Krisiak jotako poltsikoen neurrira egindako bidaia be proposatu deuskue Iberia bidaia-agentzian. Caribera bi bidaia lortu leitezke baten prezioan. Tunezera joateko be kalitate eta prezio aldetik eskaintza bikainak dagoz.



dua behar den legez prestatzeaz baino ez dabe arduratu beharko.

Buzeoa

Urpean uger egitea gogoko dabenek aukera paregabea daukie Iberia Bidaiek Itsaso Gorrian, Maldivetan eta beste hainbat txokotan buzeatzeko irteerak prestatzen ditue-eta. Titulua atera zein oinarritzko ikastaroa egitea inoiz baino errazagoa da.

Krisiagaz bidaia agentziek, aurreko urteagaz alderatuz, beherakada handirik nabaritu ez dabene arren, zeozer igartzen dela aitortu deuskue: "Jenteak erreserbak egin daizen 'Prezio segurua' plana martxan jarri dogu. Azken orduko beharpenen zain egon beharrean bukaerako prezioa ziurtatzen deusegu erreserba egiterakoan", dino Jiménezek.

Asia eta New York dira aurtengo udan oporrak pasatzeko moda-modan jarri diren bi jomuga

Maratoiak

Kirolzaleek -batez be, maratoi-lasterketak prestatzen dihardueenektapelketetan ez parte hartzeko ezingo dabe atxakiarik topatu. Iberiak Luxor (Egipto), Marrakech, Fiordoak, Lisboa, Praga eta maratoiak antolatzen ditueen beste leku askotan irteerak antolatzen ditu. Bidaia, egonaldia, janaria eta dortsala agentziaren kontu izaten da. Beraz, maratoiariek entrenamen-

Familiek itsas-bidaia aukeratzen ditue umeak doan joateko aukera eskaintzen dabelako

Urpean igeri egiteko edo maratoietan parte hartzeko aukera eskaintzen dau Iberia Bidaiek-ek



Baduzu plan hoberik oporretarako?
Ez duzu prezio hoberik aurkituko,
ez lehenago eta ez geroago

Uztaillean, abuztuan eta irailean dira irteerak

**PREZIO
SEGURUA
PLANA**

Eskaintza ekainaren 30a artekoa da

Fray Juan de Zumarraga, 20 DURANGO Te.: 94 621 54 00
Emaila: vizcaya.durango@viajesiberia.com

Ermodo, 22 DURANGO Te.: 94 620 94 47
Emaila: durango.702@viajesiberia.com

VIAJES IBERIA

salmenta, konponketa eta boutiqueak

MOTOS TABIRA

kontsejionario ofiziala

HINELL • SCORPA • AJP
KEEWAY • PIAGGIO

Tel. 94 681 4068

Pol. Arriola, 154 poligono 0220 MATENA-Alaitza

www.motostabira.com

TOLDOAK, PERTSIANAK ETA LEIHOAK

Lantegia:
Kisaga s/g
48260 Ermon
Tel.: 943.136.601
Fax: 943.374.868

Oiz kalea 10
Durango
Autobus geltokiaren ondoan
Tel.: 94 620 26 61

ventanasago@euskalnet.net

telepizza®

Askatasun etorbidea, 25
Tel.: 94 621 81 86
Durango

**SALTOKIAN ZEIN ERAMATEKO
2x1**

Pizza Ertainak eta Handiak
4 osagai edo gehiagorekin
Bigarrena balio berekoa
edo gutxiago
asteko zazpi egunetan balio du

anboto

Durangaldeko
usaina ezin dizugu
transmititu,
baina Durangaldea
entzun, ukitu
eta ikusteko, ...

www.anboto.org

anboto
komunikabideak

Kirola eta itsasoa, beroari aurre egiteko errezeta

Kostatuta bada be, udako egun sargoriak heltzeaz dagoz, eta horri kontra egiteko modurik eraginkorre-
na bainu freskagarri bat hartzea da. Hainbat modu
dagoz horretarako. Horreetako bat herriko igerileku-
ra joatea izan leiteke, baina, bainua hartzeagaz bate-
ra kirola be egitea gura izanez gero, udako eguraldi
beroa uretako kirolak praktikatzaz baretu geinke.
Esaterako, surfa edo piraguismoa eginez.

Udako oporretan egun nahiz arra-
tsalde dibertigarri eta atsegin bat
igarotzeko ez dago Durangaldetik
askorik urrindu beharrik, Urdaibaiko
biosfera naturala minutu gitxira
dago-eta, Busturialdean. Bertan,
segurtasun osoz eta adituen lagun-
tzagaz batera, hainbat ekintza egin
ahal izango dau dibertsitzeko gogo
daukanak; eta, zelan ez, uger egiten
dakienak, hori da-eta aisialdirako Ur
elkarteak jartzen dauen baldintza
bakarra.

Gainera, umeei, hasibARRIEREI zein
euren ezagutzak sakondu gura
ditueenei eskaintako ekintzak aur-
kitu ahal izango dira bertan, ekin-
tzak mailaka sailkatuz. Era berean,
eskaintza horreetako gehienak mar-
txotik azarora bitartean aukeran
egon badagozen arren, ekainetik
iraila bitartean asteko zazpi egune-
tan egongo da zabalik aisialdirako
elkarte hori; beraz, etxean geratze-
ko denporaren atxakiarik ez dago,
behintzat.

Esate baterako, piraguan gabil-
zen bitartean, Urdaibaiko biosfera-
ren edertasunaz gozatzeko aukera
pategabea daukagu, Laidako hon-
dartzatik abiatuta. Kirolagazko
lehenengo kontaktua izateko,
hasierako arraunkadak babestutako
eremu baten emoten dira, esperien-
tziadun monitoreen eskutik eta
material egokiagaz, ikastaroa atse-
gina eta eraginkorra izan daiten.

Halan be, piraguan ibiltzea
baino surfa egitea gurago badozue,

Durangaldetik gertu,
Urdaibaiko biosfera
naturalean hainbat
kirol praktikatu
leitekez uda osoan
zehar asteko zazpi
egunetan

Piraguismoa edo
surfa egiteaz gain,
lehorreko kirolak be
egin geinkez; beste
hainbaten artean,
mendi-ibiliak eta
arku tiroketa

gogoia da beharrezko den bakarra,
gainerakoa bertan aurkitu ahal
izango dozue-eta. Olatu artean ibil-
tzeko ez da gehiagorik behar, uger
egiten jakinez gero. Surfagaz lehe-
nengo hartu-emonak izango daben
ikasleek irakasle profesionalekin
lehenengo urratsak emoteko aukera
izango dabe, eta, oinarritzko kon-
tzeptuak barneratu eta gero gehia-
go sakontzeko interesa daukanak,
ikastaro teknikoetan egin leikez.

Lehorrerako plana

Urdaibaik zer edo zer onik badauka,
itsasoa eta lehorra uztartzeko
eskaintzen dauen aukera da, eta
surfa egiteaz zein piraguaz ibiltzeaz
aparte, mendi-ibiliak eginez ingura-
tzen gaituen naturagaz disfrutatze-
ko edo arku-tiroketagaz gure begi-
puntua zorrozteko aukera be eskai-
niko deusku Ur aisialdi taldeak.

Eta ez hori bakarrik, multiaben-
tura zirkuitu batean bere abilezia
proban jartzeko aukera be izango
dau ausartzen denak. Gainera,
Urdaibain zehar egin leitekezen ibi-
laldietan, adibidez, marea errotak,
ostra-haztegiak, Arteagako gaztelua
eta biosferako beste hainbat bazter
liluragarri ezagutu ahal izango dira.

Eta, Busturialdean moduan,
Euskal Herri osoan be beste hamai-
ka txoko dagoz bai kirola egiteko,
bai urtean zehar bizi dogun egune-
rokotasunetik urtetako. Beraz,
2009ko uda dibertigarria izatea
zeure esku dago.



udan ere euskaraz!



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Kultura
Saila
Departamento
de Cultura

MUSIKA > ELKARRIZKETA

“Zeresana emongo dau biharko aurkezpen kontzerturako prestatu dogun ikuskizunak”

Armyarma taldeagaz joko dau bihar Abadiñoko **Muted** taldeak disko guztien aurkezpena egiten daben eta euren “etxe moduan” sentitzen daben Plateruenean. Duela 3 aste kaleratu eben ‘Inox’ diskoa aurkeztuko dabe

Formazinoan aldaketak izan dira aurreko diskoa (Sena) argitaratu zendueenetik?

Bai, Aitzol eta Anderrek itzi eben taldea, eta ‘Sena’ diskoaren bira amaitzeaz gengozela Tito baxu-jotzailea sartu zen taldean, igazko ekainean. Sei gara, beraz, orain Muted osatzen dogunak.

‘Inox’ diskoa formazino horregaz sortutakoa da, beraz.

Bai. Irailean hasi ginen disko barrirako kantak izango zirenak sortu eta prestatzen, eta martxoan sartu ginen estudioan grabazinoa egiteko.

Zelan joan zen grabazinoa?

Bi aste egon ginen Berrizko Lorentzo Records estudioan grabazinoa egiten, eta Madrilera joan ginen gero, Alberto Seara eta lehen Sober taldean zebilen Carlos Escobedogaz nahasketak egiteko.

“Aitzol eta Anderrek itzi eben taldea, eta Tito baxu-jotzailea sartu zen udan”



Lorentzo Records-en grabazinoa, eta nahasketak Madrilen egin ditue

Aurreko diskoa zuzenean aurkezten urtebete emon dozue?

Bai. Aurreko diskoa orain urte bi kaleratu, urtebete inguruan kontzertuak eskaintzen aritu, eta beste urte erdi inguru disko barria prestatzen ibili gara.

Zer sentsazio itzi deusuen igazko bira harek?

Aurrekoa apur bat ahaztuta be badaukagu, egia esanda; *Inox* aurkezten hasteko gogo da orain daukaguna. Baina ondo egon zen bira; batez be, Bizkaia aldean aritu ginen.

Aurreko diskoan abeslari bi, eta oraingoan bakararra daukazue?

Bai, Aitzol eta Eneko ziren lehen abeslariak, eta orain Aitzolek taldeaitzi dauenez, Enekoen ahotsa bakarrik dago mikroan.

Zelakoa da ‘Inox’?

Batez be, ahotsari jagokonez aldaketatxo badago: disko honetan ez dago garrasi bat

bera be, dena da melodikoagoa. Aurreko diskoagaz eta lehenengoagaz daukan alde nagusia horixe da: ahotsarena.

Ahotsaren aldaketa esanguratsua da, beraz?

Bai. Jente batentzako, zelanbait “entzungarriagoa” izango da disko hau: ahots bortitz hori ez dagoelako gustatuko jake batzuei gehiago... Nahiz eta beste batzuei justu arrazoi horregaitik gustatuko jaken aurreko baina gitxiago... Aldaketa bat emon behar zen, eta onerako izan dela uste dogu.

Diskoko kantak sortzeko prozesua zelakoa izan da?

Aurreko diskoetan legez, lokalera ideia solteak ekarri ditu taldekide bakoitzak. Horregaz, gero, denok elkarregaz sortzen doguz kantak. Ondoren Enekok hitzak eta melodialantzen ditu etxean. Sortze-prozesuak holan izaten dira: lau ideiaz etorri lokalera, eta gero denon artean garatuta sortzen dira kantak.

Nahasketa egitera Madrilera zergaitik joan zarie?

Hemen zelan egiten den ezagututa, hemendik kanpo zelan lan egiten daben probatu gura genduen. Hemen lortu ez dogun

“Disko honetan ez dago garrasi bat bera be, melodikoa da ahotsa”

Idea batzuk lokalera ekarri, eta denok elkarregaz landu ditue abesti barriak

“Soinu aldetik puntu estra bat bilatzeko joan ginen kanpoan nahasketa egitera”

puntu estra hori emon gura gendutsan diskoari. Emaizagaz oso pozik gagoz. Soinuari jagokonez, kalitatea bilatzen genduen.

Musikalki aldaketarik badago disko honetan?

Lehenago Muted entzun dauenak Muted dela jakingo dau, ez da aldaketa handia gertatu, nahiz eta Euskadi Gaztean *single* moduan darabilen kantak ez dauen hori islatzen. Diskoan gehigarri moduan sartu dogun abesti bat dabilz diskoaren aurkezpen legez emoten, baina esanguratsua ez dena. Hori baina entzun ez daue-nak pentsatuko dau aldaketa handia izan dela, baina ez da holan.

Zer abesti litzakezuen ustez irratiari ipintzeko singlelik onena?

Hainbat dagoz diskoan: *Maila berean*, *Hilzorian*, *Une latzak*. Hainbat lirareteke aproposak irratiari aurkezpen legez ipintzeko.

Elektronika gehiago dago aurrekoetan baino?

Esaten dabenez, 80ko hamarkadako doinuak ekartzen ditu diskoak gogora, hori dinoskue behintzat... Baina bai, behar bada badauka protagonismo handiagoa elektronikak eta programazinoak *Inox* disko honetan.

Beste aldaketarik bada?

Diskoaren eta taldekideon estetika be aldatu da, bai: lehen ilunagoa zen. Musikaren estiloa aldatu denez, taldekideak aldatu direnez, estetika eta eszenaratzeara be aldatu dira.

Platerueneko aurkezpeneko zer prestatu dozue?

Asko landu dogu ekainaren 13ko aurkezpena: hainbat sorpresa izango dira, eta Aitzolek be parte hartuko dau. Aurkezpeneko espektakuluak emongo dau hizpiderik, bai. ■ I.E.

IKASTEKO TEKNIKAK IKASTARO BERRIA

irakurmena • ulermena • motibazioa • plangintza • azterketak

www.psikologo.biz

Jon Arruabarrena – Psikologoa
Francisco Ibarra, 6 (Durango)

946 033 246
629 245 728

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Ekainaren 12an, 22:00etan

EUSKARAZETAMOL

'Dibertimenduak' trilogiaren azken aleagaz jatoriku Ez Dok Hiru-Bikotea-troa: 'Euskarazetamol'. Esperimentu zientifiko bat probatu gura izan dabe Patxo Telleria eta Mikel Martinezek, "mega-ikuskizun" honetarako "super-euskara" lortzeko: "Euskaltzaindiaren Liburutegian sartuta egon gara hilabete osoz, artxibadore baten barruan. Azkenengo egunean odola atera deuskue, emanaldi egunetan autotransfusino bat egiteko".

ANTZERKIA

DURANGO

> Umeendako antzerkia: 'iHabía una vez... dos piés!' (Teatrino dei Piedi-Italia), ekainaren 14an, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.



> 'Tatami' (Tanttaka Teatro), ekainaren 16an, 20:30ean, San



Agustin kulturgunean.

IURRETA

> 'De Pelicula' (Oihulari Klown), ekainaren 15ean, 19:00etan, Ibarrexe kultur etxean. Gizarte Ongizate Sailak antolatuta.



> Iurretako III. Kalez Kale: 'Zirko Iluna' (Hortzmuga), ekainaren 18an, 17:30ean, Tellitu aparkalekuan.



ELORRIO

> 'Euskarazetamol' (Ez Dok Hiru

Bikoteatro), ekainaren 12an, 22:00etan, Arriola antzokian.

BERBALDIK

DURANGO

> 'Desarrollismoaren eraginak Durangaldean', ekainaren 13an, 17:00etan, Sapuetxe gaztetxean.

> 'Ezintasuna, tutoretza eta testamentu-egikaritzeak', ekainaren 15ean, 19:00etan, Durangoko Auzoko Etxean. Gorabide elkarteak eratuta.

> 'AHTrik ez, eskerrik asko. Las razones del No' liburuaren aurkezpena (Iñaki Barcena EHuko irakaslea eta Josu Larrinaga soziologoa), ekainaren 18an, 19:00etan, Sapuetxe gaztetxean.

BESTEAK

BERRIZ

> Berriz Bizikletari Elkarteak Frantziako Tourrera irteera antolatu dau: Montélimar-Mont Ventoux (20. etapa). Uztailaren 24 irtengo dira eta 26an itzuli (berrizbizikletarielkartea@gmail.com / 660 712 138).

> 'Ateak Zabalik Kirolari' eguna, ekainaren 14an, Berrizburu kiroldegian.

DURANGO

> Lariz Torrera bisita gidatua, ekainaren 13an, 20an eta 27an. Turismo Bulegoan izen emon behar da (94 603 39 38).

ERMUA

> Dantza erakustaldia. Ekainaren 13an, 19:00etan, Herriko plazan,

Txindurri dantza eta txistu taldeak antolatuta.

> Skater-en lehiaketa erakustaldia. Ekainaren 13an, 10:00etan

hasita, Beti-Ondon. Boress elkarteak eratuta.



IURRETA

> 'Ateak Zabalik Kirolari'. Ekainaren 14an: mendi-ibilaldia, 11:00etan, Udaletxetik irtenda. Aldi berean, txistulariak. Futbol Guay eta atletismo dibertigarria, Aita San Migel plazan, 11:15ean; Olaburu frontoian, barriz, pilota eta herri kirolak. Parte-hartzaileen artean kamisetak, edariak eta hainbat zozketarako txartelak banatuko dira.

> XIII. Duragaldeko Nagusien Gimnasia Topaketa. Ekainaren 18an, 11:00etan hasita. Taldeen erakustaldia amaituta, 14:00etan, bazkaria eta dantza, Goiurian.

ZALDIBAR

> Gaztelekua (12-16 urte): irati tailerra, ekainaren 12, 13 eta 14an, 16:00etatik 20:00etara. Zapatublai, ekainaren 13an, 16:00etatik 19:00etara, herri ikastetxean.

> Zaldibarko II. Pilota Txapelketa, ekainaren 12an, 18:30ean, Olazar pilotalekuan.

ZORNOTZA

> 'Gauero' gaztetxoendako gaueko aisialdi egitasmoa (10-14 urte), ekainaren 12an eta 13an, 20:00etatik 23:00etara, Zelaieta zentroan.

DEIAK

DURANGO

> Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

> Mugarri Eguna, ekainaren 20an, 08:00etan, Andra Mariko elizpean. Izena emateko azken eguna ekainaren 19a (94 603 00 30 / informazioa@durango-udala.net). Alpino Tabira mendizale taldeak eratutakoa Udalaren laguntzagaz.

ERAKUSKETA

DURANGO

> 'Hitzaren Itzalak'. Imanol Larrinagaren margoak eta Juan

Ramon Makuso, Aritz Gorrotxategi eta Pello Otxotekoren olerkiak.

Ekainaren 28a bitartean, Arte eta Historia Museon.



> 'Momentuak' (margoak). Noemi. Ekainaren 30a arte, Andragunean. Egileak gidatutako bisita, hilaren 16an, 17:30ean. Andraguneak eta Aukera Berdintasun Sailak eratuta.

ERMUA

> Margoak. Udal Margo Eskola. Ekainaren 15etik 28a bitartean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

> Zelaietako tailerretako lanak (pinturak, grabatuak, argazkiak, zurezko lanak...), ekainaren 15a bitartean, Zelaieta zentroan.

IKASTAROK

BERRIZ

> Berrizburun ikastaro barriak. Izena emateko ekainaren 24a arte, kiroldegian bertan.

DURANGO

> Autoikasketa udan. Ekainaren 29tik uztailaren 30a arte, eta irailaren 1etik 30a arte; 60 ordu. Udal Euskaltegiak eratuta. Izen-emotea, ekainaren 24a arte (94 603 00 40 / euskaltegia@durango-udala.net).

> Euskara ikastaro trinkoak AEK-k eratuta, ekainaren 22an hasi eta uztailaren 17a bitartean. 1., 2. eta 3. maileri begira antolatutako eskolak bost ordukoak dira (denera, 100 ordu). Izena emateko epea zabaldu dau AEK-Abarrak euskaltegiak.

> 2009/10 ikasturterako matrikula epea zabalik, Bartolome Ertzilla musika eskolan, ekainaren 25a arte. Musika eskolako idazkaritzara jo leiteke (94 603 00 35 / bertzilla@durango-udala.net).

ELORRIO

> Autodefentsa tailerra. Ekainaren 13an edo 20an: 10:00etatik 14.00etara eta 15:30etik 19.30era, Kiroldegian. Irakaslea: Maitena Monroy. Emakume eskolaren baitan 'Feminismoa: zer arraio da hori?', ekainaren 9, 16, 23 eta 30ean, 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea, Saioa Hernández. Aurrez eskatuz gero, haurtzaindegia izango da. Izena Udaletxean emon behar da, edo webgunearen bitartez.

JAIK

ABADIÑO

San Antonio-Urkiola

> San Antonio jaia, ekainaren 13an, Urkiolan. Meza nagusia 12:00etan, Bilboko gotzain laguntzailea buru dela. Berriatuko koruak abestuko dau. Gero, Azpillaga eta Peñagari-kano bertsolariak, eta, goiz osoan, azoka Udalak eta Abeltzain Elkarteak eratuta. Mezak orduro, 09:00etatik 11:00etara; 13:00etan, 18:00etan eta 19:00etan be bai. Trikitilariak girotuko dabe eguna.

> Errepetizino Eguna: Korpuztu jaia, ekainaren 14an. Mezak San Antonio Egunez lez, eta, 12:00etako meza nagusia amaitu ondoren herri-kirolak. Trikitilariak girotuko dabe eguna.

DURANGO

Euskal Astea

> Errioxara irteera, ekainaren 13an, 09:15ean, Berbalagunek eratuta (639 400 786).

> Kalejira: Tabirako musika banda + Elgoibarko dultzaineroak, ekainaren 13an, 19:00etan. Kontzertua, 19:30ean, Andra Mariko elizpean.

> 'Durango Hiria' V. Lehiaketaren sari banaketa: Txistu kontzertua eta Duo Iceberg (flauta eta pianoa), ekainaren 13an, 20:00etan, San Agustin kulturgunean Silboberri txistuzale elkarteak eratuta.



> Nekazaritza azoka, ekainaren 14an, 11:00etatik 14:00etara, Merkatu Plazaren inguruan; 12:00etan, kalejira hasiko da: Durangoko Trikitixa eta Pandero Eskolak, Bartolome Ertzilla musika eskolako txistulariak, Jaizale Durangaldeko txistulari elkarteak, eta Txoritxu Alai, Tronperri eta Kriskitin dantza taldeak.

JARDUNALDIA

ABADIÑO

> Bizkaiko Jabekuntza Eskolen Sarearen aurkezpena, ekainaren 17an, 17:00etan, Errota kultur etxean. Emakundek VI. Berdintasunerako Gunearen baitan.

ekaineko agenda

Ekainak 13-14 • Iurretako Txirindulari Elkarteak 08:00 Iurretatik Iurretara. (90-100km)

Ekainak 13-14 • XXII. Emakumeen Bira 13 zapatua - 10:00etan Iurretako-Goiuria. 3. etapa. 14 domeka - 10:30ean Orduña-Orduña. 4. etapa.

Ekainak 15-17 • Prebias Torneo Cáfes Baque 15ean - 19:00etan Kadeteak. / 17ean - 19:00etan Gazteak.

Ekainak 13 • Erakusketa. Iurretako K.E. 11:00-12:30/17:30-20:00


Ekainak 14 • Kirol jardunaldiak ateak zabalik 11:00etatik senderismoa, txirindularitza, pelota, herri-kirolak, ...

Ekainak 16-17 • Helden irakurketa kluba 16 - 19:00etan "Mal de piedras" / 17 - 19:00etan "Etorkizuna

Ekainak 18 • XIII. Durangaldeko Nagusien Gimnasia Topaketak 11:00etan Topaketaren irekiera/11:15ean Erakusketa/14:00etan Bazkaria eta dantza Goiurian

Ekainak 18-19 • III. Kalez Kale 18 eguna - 17:30ean Hotzmuga Tellitun 19 barikua - 17:30ean Xabi Larrea Dantzarin, eta 20:00etan Trapu Zaharra Askondo

IURRETAKO UDALA



ERMUA

» **Gastronomia jardunaldiak,** ekainaren 15etik 21a arte, Orbe Kardinala plazan: berbaldiak, dastaketak, pintxo eta makailau txapelketa eta azoka, Lobiano gastronomia elkarteak eratuta.

LEHIAKETA

DURANGO

» **44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka iragartzeko kartel lehiaketa.** Lanak Gerediagako egoitzara helarazo behar dira (Larrasoloeta 3, 48200-Durango). Azken eguna uztailaren 1a. Saria: 1.300 euro.

» **San Fausto jaiak iragartzeko kartel lehiaketa.** Lanak aurkezteko azken eguna irailaren 5a, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) 12:00ak bitartean. Saria: 1.000 euro.

ELORRIO

» **Ferixa Nausikoak iragartzeko kartel lehiaketa.** Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 30a, 14:00ak artean. Saria: 500 euro. Informazio gehiagorako Iturri kultur etxera jo leiteke: (94 603 20 32).

ERMUA

» **Aire Zabaleko Margo Lehiaketa,** ekainaren 14an, 09:00etan hasita. Mugarteak antolatuta.

IURRETA

» **Aita San Migel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa.** Lanak aurkezteko azken eguna abuztuaren 28a, Udaletxean edo Ibarretxe kultur etxean, 14:00ak arte. Saria: 480 euro.

LITERATURA

IURRETA

» **Helduendako irakurketa kluba: ‘Mal de piedras’ (Milena Agus),** ekainaren 16an, gaztelera,

19:00etan, Udal Liburutegian. Ekainaren 17an, euskaraz, ‘Etorkizuna’ (Iban Zaldúa).

MUSIKA

ABADIÑO

» **Strikers + Cold Revenge + Fridays Crew,** ekainaren 12an, 22:00etan, Abadiñoako Gaztetxean.

BERRIZ

» **Damba,** ekainaren 12an, 22:00etan, Markesaren Jauregiko Lorategian.

DURANGO

» **Mallacan + Gen + Draps,**

ekainaren 12an, 22:00etan, Plateruena kafe antzokian.

» **Muted + Army Arma,** ekainaren



13an, 22:00etan, Plateruenean.

» **Krisis + Decepcion Rock,** ekainaren 13an, 22:00etan, Sapuetxe gaztetxean.

» **Terror + Born From Pain +**



Stick to Your Gun + Trapped

Under Ice, ekainaren 14an, 19:00etan, Plateruenean.

» **Kurtso amaierako kontzertua,** ekainaren 16an eta 17an, 18:00etan, Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan.

» **Europako Musika Eguna: Bartolome Ertzillako ikasleak,** ekainaren 18an, 17:30ean, Andra Mariko elizpean.

» **Malcom Scarpa,** ekainaren 18an, 22:00etan, Plateruenean.



ERMUA

» **Elektrojaia09: Javierski & Fey & A. Martinez + Txampras + Panu,** ekainaren 13an, 17:00etatik 02:00etara, Valdespina Markesaren parkean. **Malabareak, perkusinoa,**



Ekainaren 12an, 22:00etan

MALLACAN, ARAGOITIK PLATERUENERA

Aragoiko musika panoraman ondo errotutako taldeak joko dau, asteburuan, Plateruena kafe antzokian: Mallacan. Rocka, reggaea, ska... musika mota zabala lantzen dabe euren kantuetan, horretarako makina bat musika tresna erabiliz. Besteak beste, boto dultzaina eta gaita —Aragoiko tradizionalak— eta perkusino, esku-soinu edo metal-haize instrumentuak. Euren proposamena ezagutu zein disfrutatzeko aukera ezin hobea da gaurkoa. Eurok ez eze, Gen eta Drapps taldeek eskainiko dabe kontzertua.

mongol rallye gunea, kotxe erakusketa, ikus-entzunezkoak, argi-ikuskizuna, performance-a... Mongo Rally taldeak antolatuta jaialdia.

ZORNOTZA

» **Zubiaur musika eskolako ikasleak,** ekainaren 18an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZINE-KLUBA

DURANGO

» **‘Reina Victoria’ filma,** ekainaren 18an, 20:30ean, Zugaza Zineman.

ERMUA

» **Gay eta Lesbianen Harrotasuna-ren Nazinoarteko Eguna: ‘Rosas rojas’ filma,** ekainaren 18an, 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Kika superbruja

Zuzendaria: Stefan

Ruzowitzky

barikua 12:

18:00 / 20:30

zapatua 13:

17:00 / 19:30

domeka 14:

17:00 / 19:30

astelehena

15: 18:00 / 20:30

martitzena 16: 20:00



ELORRIO

Arriola antzokia

Déjame entrar

Zuzendaria: Tomas

Alfredson

zapatua 13:

22:30

domeka 14:

20:00

astelehena 15:

20:00



BOTIKAK

Barikua, 12
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-22:00
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)
Zapatua, 13
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Balenziaga / De Diego / Campillo / Unamunzaga / Sagastizabal / San Roma / (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
Domeka, 14
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Astelehena, 15
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Tranabarren 15 - Matiena)
Martitzena, 16
09:00-09:00
• Unamunzaga (Muruetta Torre 2C - Durango)
Eguaztiena, 17
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)
Eguena, 18
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

31° BARIKUA



Eguzkiak bete-betea joko dau. Hego-ukitua izango dau haizeak eta termometroa 30 °C-era hurbilduko da. Arratsaldean beroa zertxobait arindu egingo da. Bero-hodei batzuk garatu daitezke arratsalde partean.

36° ZAPATUA



Giro eguzkitsua eta beroagaz jarraituko dogu. Termometroa 30°C-tik gora iritsiko da. Arratsaldean bero-hodeiak garatuko dira. Egunaren amaieran trumoi-ekaitzak jo leikenik ezin da baztertu.

27° DOMEKA



31° ASTELEHENA



19° MARTITZENA



ERITZIA[>]

Gutunak @

342.000 euro Durangoko Aurrekontuetan

Urte bi pasatu dira jada, 2007ko maiatzaren 27an Durangoko herritarrok udal ordezkariak aukeratu gintuzuela.

Legegintzaldia hasi eta lasterrera, 2007ko Uztailaren 24an, udal talde guztiek, Talde Mistoak izan ezik, talde bakoitzeko udal politikari baten liberazioa onartu zuten; hau da, sei pertsona eta alkatesa-alkatearen liberazioa.

Orduan, esaten zuten herritarren onurarako izango zirela liberazio hauek, eta hauen lana 2007ko uda ostean nabaritzen hasiko ginela. Uda ostean euren soldata arautuko zuen barne araudia aurkeztuko zuela ere esan zuen udal talde batek, soldata gehiegizkoa zela uste baitzuten.

Guk ere, uste genuen eta uste dugu, alkatesaren liberazioa beharrezkoa dela. Baina ez, ordea, beste sei politikariena.

Kontuak kontu, eta legegintzaldi erdira abiatu garenean, jada zazpi liberatu ditugu herrian (PNVren alkatetza eta alkateordetza; PSOEren bi liberatu lanaldi erdian; PPren bi liberatu lanaldi erdian; eta Aralarren liberatu bat lanaldi erdian).

Orduan ere ez genuen honen beharra ikusten, baina kontutan hartuta egun dugun egoera ekonomikoa, are gutxiago.

Bestalde, ez dugu uste, nahiz eta denbora dezente pasatu izan, hauen lana nabaritu dugunik Durango herrian. Egunero Udaltxean lanean izanda, ez dira gai izan, bigarren urtez, herriaren norabidea markatzen duten aurrekontuak adosteko. Hau al da herriarren onurarako egin behar zena? Non dago soldata arautuko duen barne araudia?

Egoera ekonomikoa dela-eta, diru-sarrerak gutxitu egin dira, eta horregatik herriko aurrekontua txikitzen doa. Gainera, partida batzueri dirua murrizten zaien bitartean (Musika Eskola, Euskal Astea...), udal politikari liberatuak ugarituz doaz. Jadanik 21 zinegotzitik zazpi zinegotzi liberatu ditugu, hauen kostuak Durangoko herritarrentzat urteko 342.000 euro suposatzen dituelarik.

Kontutan hartzeko eta norberak pentsatzeko datuak direla uste dugu.

Guk, behintzat, argi dugu. Uste genuen, eta uste dugu, liberazioak ez direla beharrezko.

Oier Perez, Oihana Estibez, Zorione Arana eta Ritxar Alberdi. Durangoko Talde Mistoko zinegotziak

Klik batean @



Bidegurutze honetan zer autok ete dauka lehentasuna?

Traña-Matienako bidegurutze honetan zebra-bidearen aurretik jarri dabe 'stop' egiteko adierazten dauen ikurra. Irakurle batek azaldu deuskunez, "seinale hori jarri barik egongo balitz, bidegurutzean eskumatik datorrenak lehentasuna daukanez, Astolatik datorrenak Pierburgetik datorren autoari pasatzen itzi beharko leuskio".

Eskualdeko autoeskola batean galdetu dogu eta halan dela argitu deuskue. Baina orain, 'stop' ikurra jarrita, nork gelditu behar dauen argi dagoela azaldu deuskue.

kolaborazinoa



Julen Orbegoza

Europa

Europa eskuinekoa dela zioten biharamuneko egunkarietako titularrek. Horrela, Europa. Bat, bakarra eta biziduna bailitza. Horrela, Europa delako ezezagun hori biluzik utzi zuten, eskuineko hanka bakarrik erabiltzen duen herrena bailitza. Gaur egun eskuinekoa izateak zer esan nahi duen ez dakigun arren.

Europari, ordea, bost axola Europa. Zerbait izatekotan, pasota hutsa da. Egia da, bai, eskuinekoak badira European; baita sozialistak eta sasi-sozialistak ere; baina ez ahanzi ekologistak, arrazistak, informatikoak, erregionalistak, nazionalistak, Europa bera ukatzen dutenak... denetarik izango dela. Horiek guztiak Bruselan elkartuko dira. Eta kanpoan gelditu diren hamaika sentsibiltate ere, egon, badaude. Amezketa troskisten esku balego, esaterako, POSitar sozialista eta internazionalistek eserleku bat merezi dute.

Bruselako parlamentuan izango ez den ideologia europar dagoen talde kopururik handienekoarena izango da, ordea. Bozkatzeko aitzakiarik ez dutenek osatzen duten taldea, alegia. Horien artean badira abstentzionista batzuk, eta beraiek jakingo dute zergatik. Baina beste asko sufragio hitzaren konnotazioa ahaztu dutenak dira. European sinesteagauza bat da, eta ezjakintasunean itotzea beste bat.

Pigmalion efektua bete zela onartu behar dut: hainbeste errepikatzearen poderioz, bete egiten zen epaia. Komunikabideek orriak eta minutuak eskaini zizkieten hauteskunderi. Baina pedagogia egitea zegoikenean, abstentzioa gorai patzen zuten. Horrela ez da inor etxeko sofatik altxatzen. Eta SMS bitartez demokrazia kritikatu daiteke, baina sistemaren inguruko benetako hausnarketa ez da telebistari begira egingo.

Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko ekainaren 12a - 8. urtea - 334 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mañaria
Atxondo	Garai	Mallabia
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Itsaso Esteban,

Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Faborito guztiek elkarri begira eman zuten lasterketa atzo, 22. Emakumeen Birako lehenengo etapari. Pelotoian abiatu ziren arratsaldeko 16:45ean lurretatik, eta hainbat txirrindularik ihesaldia-ri ekiteko saiakera egin arren, ez zuten helburua betetzerik izan.

Autzaganera heltzerakoan pelotoia bitan zatitu zen. Aurreko taldean zihoazen faborito gehienek lehia bizia izan zuten lurretan, garaipena borrokatzeko.

Arndt eta Cooken arteko esprintean erabaki zen etapa. Columbia taldeko Judith Arndt alemaniarra izan zen garaile. Munduko Txapelketan urrea lortu berri duen Nicole Cooke ingelesa bigarren sailkatu zen. AA Drink taldeko Emma Johanson txirrindularia izan zen podiumera hiru-

Bizi-bizi ekin diote

garren igo zena. Euskaldunen artean, Debabarrena Kirolgi taldeko Ane Santestebanek lehenengo hamabosten artean helmugaratzea lortu zuen.

Bihar Belandia igo behar

